


Altsasuko Emakumeak

Hogei urteko Bizitza, Hogei urteko Historia

Mujeres de Altsasu

Veinte años de Vida, Veinte años de Historia

Araceli
Erdozia
Anso



38

colección

Lankidetzan
bilduma

Altsasuko Emakumeak

Hogei urteko Bizitza, Hogei urteko Historia

Mujeres de Altsasu

Veinte años de Vida, Veinte años de Historia

Laburpena / Resumen / Résumé	9
------------------------------------	---

Altsasuko Emakumeak

Hogei urteko Bizitza, Hogei urteko Historia

Alkate andrearen agurra	15
1. Sarrera	19
1.1. Kontzeptuak	20
1.2. Kokalekua	21
1.3. Metodologia	22
1.4. Egitura	23
2. Lana	23
2.1. Lanbidez, "etxeko andrea"	27
2.2. Landa lanak	29
2.3. Apopilotza	32
2.4. Familia negoziok eta beste baliabide batzuk	34
2.5. Lantegietan	37
2.6. Langileak eta langileztat hartuak	40
3. Emakumeen bizitza intimoa	43
4. Emakumea bizitza publikoan	48
4.1. Politika	48
4.2. Asoziazionismoa	49
5. Denbora librekoa	51
6. Toki berri bat	54
7. Ondorioak	58
8. Bibliografia	60

Mujeres de Altsasu

Veinte años de Vida, Veinte años de Historia

Saludo de la Alcaldesa	67
1. Introducción	71
1.1. Conceptos	71
1.2. Localización	73
1.3. Metodología	74
1.4. Estructuración	75
2. Trabajo	76
2.1. De profesión, "sus labores"	80
2.2. En el campo	82
2.3. Patronas y pupilos	86
2.4. Negocios familiares y otros recursos	88
2.5. En las fábricas	90
2.6. Trabajadoras y reconocidas	94
3. La mujer en la intimidad	96
4. La mujer en la vida pública	101
4.1. Política	101
4.2. Asociacionismo	102
5. Los ratos libres	104
6. Un nuevo lugar	107
7. Conclusiones	111
8. Bibliografía	113
Argazkiak / Fotografías	115
Bibliographic Section	119

Hogei emakumeren testingantzaren bidez, horiek herriaren garapen globalari egindako ekarpena bildu du lan honek. Azterturiko aldian (50/70 urteak), ekarpen hori garrantzitsua bezain ezezaguna eta ezkutua izan zen. Urte horietako emakumeen bizipenen erakusgarri txikia dira kontaketa hauek. Azterlan hau bilketa, zabalkunde eta emakume horien ekarpenaren balioeste arik eta bat da.

Giltza-Hitzak: Garapena. Emakumea. Generoa. Esparru publiko-pribatuak. Estrategiak. Eredu soziala.

El trabajo, recoge por medio del testimonio de veinte mujeres, su aportación al desarrollo global de la localidad. En el periodo de estudio (años 50/70) esta aportación resulta tan importante como desconocida y oculta. Sus relatos son un pequeño reflejo de las vivencias de las mujeres durante estos años. El trabajo supone un ejercicio de recopilación, divulgación y valoración de su aportación.

Palabras Clave: Desarrollo. Mujer. Género. Ámbitos público-privado. Estrategias. Modelo social

Le travail recueille, à travers le témoignage de vingt femmes, leur contribution au développement global de la localité. Dans la période étudiée (années 50/70) cette contribution est aussi importante que méconnue et occulte. Leurs récits sont un petit reflet des expériences vécues par les femmes durant ces années-là. Le travail représente un exercice de compilation, divulgation et évaluation de leur contribution.

Mots Clés: Développement. Femme. Genre. Domaines publico-privés. Stratégies. Modèle social.

Altsasuko Emakumeak

Hogei urteko Bizitza, Hogei urteko Historia



Araceli **E**rdozia **A**nso

Altsasuko Emakumeak

Hogei urteko Bizitza, Hogei urteko Historia

Alkate andrearen agurra	15
1. Sarrera	19
1.1. Kontzeptuak	20
1.2. Kokalekua	21
1.3. Metodologia	22
1.4. Egitura	23
2. Lana	23
2.1. Lanbidez, etxeko andrea	27
2.2. Landa lanak	29
2.3. Apopilotza	32
2.4. Familia negozioak eta beste baliabide batzuk	34
2.5. Lantegietan	37
2.6. Langileak eta langileztat har tuak	40
3. Emakumeen bizitza intimoa	43
4. Emakumea bizitza publik oan	48
4.1. Politika	48
4.2. Asoziazionismoa	49
5. Denbora librea	51
6. Toki berri bat	54
7. Ondorioak	58
8. Bibliografia	60

“Altsasuko emakumeak. Hogei ur teko bizitza, hogei ur teko historia” Altsasuko Udalak Eusko Ikaskuntzari proposatutako ikerketa historiko baten emaitza da. Udalak erakunde horrekin sinatuta duen lankidetzaren hitzarmenaren baitan gauzatutako ikerketa baten emaitza.

Harro egoteko arrazoa da, niretzat, emakume hauen lekukotasunak biltzen emandako urtearen emaitza erakutsi ahal izatea; gure herriaren motorra izan baitira emakume horiek, beren bizitzarekin eta lanarekin.

Proiektu honen xedea da gure belaunaldiaren aurreko belaunaldietako emakumeek beren lanaren bidez –lana, hitzaren zentzurik zabalenean har tuta– egindako ekarpena azalera ateratzea.

Gure ustez, ezinezkoa baita Altsasuko Historia idaztea, eta Historia oro har idaztea, baldin eta emakumeek ekarpenetan, gizartean, kulturean eta hezikuntzan egindako ekarpenak kontuan hartzen ez badira. Orain arte ezkutuan egon diren ekarpen horiek, eta litekeena da islatu nabarmenik ez izatea unean uneko gertaera edo egoeretan, historiako liburuetan agertzen diren egitandietan; baina ezin ukatu ageri-agerikoa dela aguneroko bizitzaren alderdi guztietan, jendearen bizitzaren alderdi guztietan.

Eskerrak eman nahi dizkiot libururik honen egile Araceli Erdoziari, proiektu honetan parte hartu izanagatik, eta Nerea Arestiri, ikerketaren zuzendari gisa emandako laguntzagatik.

Azkenik, eta hau nire iritzia da, baina Altsasuko Udala eta herri guztia nirekin bat etorriko direlakoan nago, esker bezeriak eman nahi dizkiet lan honetan parte hartzeko proposamena onartu zuten emakumeei: Historia egiteaz gain, Historia hori ezagutzeko aukera eman baitigute, orain, beren ahozko lekukotasunaren bidez.

Asun Fernandez de Garaialde y Lazkano Sala
Alkatea
2006ko urtarrila

Eskerrak eman nahi dizkiet istorio honetako protagonista guztiei, beren oroitzenetan sartzen uzteagatik, jarri duten arretagatik eta beste emakume batzuegana iristen laguntzeagatik; Nerea Arestiri emandako aholku, gomendio eta laguntzagatik; Idoiari eta Nievesi lan osoan zehar emandako laguntzagatik.

“(...) hemen garai hartan emakume ezkonduak ez zuten lanik egiten. Beno, esan nahi dut ez zutela soldata irabazten, baina lan astoek bezala lan egin dute beti emakumeek! Gurdi haiekin, behi haiekin, ur ontzi haiek goraino beteta zituztela etortzen ziren emakume gaixoak, eta gero belarra biltzen..hemen emakumeek lan asko egin dute; gizonetakoak RENFEra edo Fundicionesera joaten ziren, hori baitzegoen hemen urte haietan, eta gero joaten ziren, bai, pixka bat sorora, baina etxean emakumea, eta soroan emakumea, eta seme-alabekin emakumea. Hemen dena zen emakumearentzat. (...) Hura ez zen lana; lana zen soldata etxera ekartzea, eta hori ez zen ondo ikusten garai hartan”.

1. SARRERA

Lan honi ekitean oso kontuan izan dugu ez dugula ezagutzen historiako hainbat alditan emakumeek izan zuten bizimodua, eta orobat kontuan hartu dugu emakumeek beren inguruneko historian izan duten zeregina ikusezina izan dela.

Oinarri hartuta historia pertsonen bizi esperientziek osatua dela, oro har, eta ez unean uneko gertaerek edo pertsonaia bereziek osatua, lan honetan gure asmoa izan da Alt sasuko emakumeen bizitzan barneratzea, 50eko hamarraldiaren amaieratik 70eko hamarraldiaren erdialdera bitarteko emakumeen bizitzan, zehazkiago.

Garai horretan aldaketa handiak gertatu ziren udalerrian, eta emakumeen esperientziatik abiatuta jakin nahi izan dugu horien berri. Horrez gainera, emakumeek beren erabaki eta jarduren bitartez, prozesu horri egin zizkieten ekarpenak bildu nahi izan ditugu lan honetan.

Horregatik guztiagatik, emakumeek Alt sasuko garapen prozesuari egingako ekarpenari balioa ematea izan da gure xedea, lehenburuan.

Libildu horretan, honako hauek izan ditugu aipatutako lortzeko baliabide eta lanaren helburuak: emakumeek udalerriaren garapen prozesuan izan duten paperaren berri ematea; emakumeek udalerriaren bilakaerari buruz zer ikuspegi duten eta bilakaera horretan zer zeregin izan duten biltzea; Altsasuren garapenaren azterketan generoaren ikuspegia aintzat hartzea.

Gai honen aurkari dagokionez, azpimarratu beharra dago Alt sasuko herriari buruz ez dagoela ikuspegi hori oinarri hartu duen lanik. Hainbat ikerketak historiko egin dira, batez ere ekonomiaren eta ekizpenaren alderdiak, alderdi politikoak, artistikoak eta demografikoak aztertu dituztenak. Badago ere bertako kultura eta ohiturei buruzko azterketarik, baina ez dago generoaren ikuspegiari jarraituz osatu den lanik.

Aurretik egin diren lanetan, emakumei eman zaien lekua, bai gizabanako gisa bai talde gisa, guztiz anekdotikoak izan da.

Udalerriaren eremutik kanpo ere, ez da ohikoak lan honek abiapuntutzat hartu duen ikuspegia. Emakumea eta garapena aztertu dituzten liburu gehienek aldaketek emakumearengan izan duten eragina aztertzen dute, eta emakumea aldaketa horietara nola egokitzen den aipatzen dute; baina ez da alderantzizko azterketarik egiten, alegia, emakumeak prozesu horiei zer ekarpen egin dizkion, nahiz eta, askotan, protagonisten esperientziak berak nahikoa diren horiek azaltzeko.

Hala eta guztiz ere, aurretik egin diren azterketak historiko, politiko, ekonomiko edo demografiko horiek guztiak laguntza handikoak izan dira lan honetarako, ikerketa gaia testuinguruan kokatzeko, batez ere.

1.1. Kontzeptuak

Gaiaren nondik norakoak labur-labur aztertu ondoren, interesgarria da oinarriko hainbat kontzeptu eta ideien definizioari tar tea egitea.

Garapen hitza esanahi zabaleko kontzeptua da, eta definizio ugari ditu, hitzaren hainbat nabardurari erreparatzen diotenak. Ikerteta honetan garapen hitzaren honako definizio hau hartu dugu oinarri:

Tokiko garapena gizarte eragile batzuen (pertsonek, taldeek, erakunde publiko edo pribatu) arteko elkarreraginaren ondoriozko aldaketa prozesu orokorra da; prozesu horrek, aldi berean, eragile horiei eragiten die.

Definizio horretatik abiatuta hainbat ideia sortzen dira:

Eragile sozialen eta prozesuaren arteko elkarreragina eta atzeraeragina; eragileek egoerak eta testuinguruak sortzen dituzte, eta azken horiek, aldi berean, eragileak baldintzatzen edo moldatzen dituzte. Pertsonak subjektu pasiboak dira (aldaketek eragina dute beraien gain), baina baita subjektu aktiboak ere (aldaketa eragiten dute).

Garapenari buruzko gaur egungo ikuspegia garapen ekonomiko-produktiboan bereziki oinarritzen ziren aurkeztutako ikuspegi oso bestelakoa da, *Desarrollismo* deiturikoaren oso bestelakoa hain zuzen. Gaur egun, beste alor batzuk hartzen dira kontuan, baina lan honetan aztertutako aldiaren ez zuten halak orik gertatzen. Garai hartan, garapen prozesua balio produktiboen arabera da; eta lan honetan aipatzen diren beste azterketak alorrek bereziki sortzen joan ziren.

Ikerteta lan honetan emakumeen izaera pasiboaz gainera (aldaketek beren bizimoduaren zer eragin zuten...), izaera aktiboa, haien *ekarpena* alegia, aztertu nahi izan da. Bestalde, garapen prozesuan parte hartzen duten gizartearen hainbat alderdi hartu dira kontuan, eta ez bakarrik alderdi ekonomiko-produktiboak.

Lan honetan, ordea, bada azpimarratu beharreko oinarriko beste ideia bat: gizartearen bi esferak edo eremuak daude elkarrengandik bereizita, alderdi publikoa eta alderdi pribatua. Gizartearen alderdi publikoa "gizartearen begira" egiten diren jarduerak eta harremanak dagokio, alegia, lanaren, politikaren, kulturaren, eta abarren alorreko harremanak. Horien aurrean, eremu pribatuaren egiten diren jarduerak daude, batez ere familiarren egituraren barruan egiten direnak alegia.

Dikotomia hori behin eta berriro agertzen da generoaren ikuspegitik abiatuta egiten diren lanetan; izan ere, bi eremu horien arteko bereizketak harremanak izan daude generoaren bereizketekin, batez ere lehenengo aldi historikoetan, baina baita gaur egun oraindik ere: gizonezkoen eremu publikoa, emakumezkoen eremu pribatua.

Hori zuten gizarte egituraren eredu ideala, baina kasu guztietan ezin zitekeen bete; beharrik eragindako egoerak izaten ziren eremu horien arteko haustura eragiten zutenak (alargunak seme-alabekin, aurrera ateratzeko emakumearen diru sarrerak behar zituzten langile klaseko familiak, etab.).


Eremu edo esfera publiko eta pribatuaren arteko bereizketa horrek eta eremu bat zein bestea pertsonaren generoaren arabera izendatzea lotura zuzena du zenbait eredu teorikoaren ezarpenarekin: gizona *eguneroko ogia irabazten duena edo breadwinner-a*, eta emakumezkoa *etxeko andrea*¹.

Sexu bakoitzak paper bat du gizarte horretan: gizonetzakoak familiak bizirik irauteko behar diren baliabide material guztiak lortu behar ditu, eta emakumezkoak talde hori zaindu eta haren artean arreta arduratu behar da.

Bai Eliza Katolikoak bai estatu frankistak eredu ideal horietan oinarritutako eskema hartu zuten, eta garrantzizko lana egin zuten eredu hori ezarri eta bere horretan mantendu zedin; hori retarako, legezko eta doktrinamenduzko neurriak hartu zituzten, eta barne-barruraino sartu zirenak garai hartako gizarteak.

1.2. Kokalekua

Altsasua da, gaur egun, ibarrean eta Nafarroa iparraldean osoan biztanle gehien dituen gunea; halaber, ekonomia eta produktio gune garrantzitsua da.



Ezaugarri hori, alegia eremu horretan biztanle gehien dituen udalerria izatea (7.508 biztanle gaur egun), XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera hasi zen sortzen, eta XX. mendean indartu zen. Biztanle kopuruaren igoera bereziki nabarmena izan zen 50eko hamarraldiaren amaiera eta 70eko hamarraldiaren erdialdea bitartean. Igoera etengabe horrek (80ko hamarraldian baino eten ez zena) lotura zuzen-zuzena izan zuen XIX. mendearen azken laurdena eta XX. mendeko 70eko hamarraldia bitartean herriaren garapen ekonomiko-produktiboarekin.

Emakumeek herriaren garapenera inpartatu zuten ekarpenaren azterketa bereziki interesgarria da Altsasuren kasuan, udalerritik jasotzen diren eraldak etan inguruko beste herrietan izandakoak baino biziagoak izan baitziren.

1. PEREZ-FUENTES HERNANDEZ, Pilar. *Ganadores de pan y amas de casa: los límites del modelo de Male Breadwinner Family. Vizcaya, 1900-1965*. In: SARASUA C., GALVEZ L. *¿Privilegios o eficiencia? Mujeres y hombres en los mercados de trabajo*. Alacanteko Unibertsitateko Argitalpenak. 2003. 217-237. orr.

Altsasuren garapen prozesuaren bar ruan hainbat aldi izan dira. Pro zesua- ren ideiak denboran zehar jar raipen bat izan dela adierazten du , eta halaxe da: herri baten garapen prozesua ezin da mugatu, ezin zaio hasiera eta amaiera jarri, baina, hala eta guztiz ere, aldiak bereiz litezke, gertatutako aldaketan eta gertaeren garrantziaren arabera.

Ildo horretatik, Altsasun izan den garapenari dagokionez, bi aldi nagusi bereizten dira, ekonomiaren, produkzioaren, demograf aren, kulturaren eta gi- zar tearen alor rean sor tutako aldaketak kontuan hartuta.

- 1. aldia: XIX. mendearen azk en herenetik XX. mendearen hasiera arte- koa. 1863an burdinbidea eraiki zen, eta orduan ger tatu zen lehenengo industrializazio aldia.
- 2. aldia: XX. mendearen 50eko hamarraldiaren amaiera eta 70eko ha- marraldiaren erdialdea bitar tekoa. Aldi honetan bult zada berria izan zuen herriko industrializazioak, eta bult zada horrek maila guztietan izan zuen eragina, baita i goera demograf koan ere.

Bi aldi horiek azpimar ratzeak ez du esan nahi beste bat zuzuk alde batera uzten ditugunik, horiek ere interes handik oak baitira (ger ra zibila eta ger ra ostea, 80ko hamarraldiko industria krisia); baina aipatutako bi aldi horietan al- daketa nabarmenak gertatu ziren herrian, herriaren izaera goitik behera aldatu zutenak: nekazaritzan oinarritutako gizartea izatetik (landa lanean oinar ritua; beste kulturetako taldeekin har reman gutxi zuena...) hiri ezaugar rietan oinarri- tutako gizarte izatera igaro zen (industria ek oizpena, zerbitzuak, parte-hartze politikoa, kulturen ar teko har remana...).

Bereizketa horretatik abiatuta, XX. mendearen 50eko hamarraldiaren amaie- ra eta 70eko hamarraldiaren erdialdea bitar teko aldia azter tzea erabaki dugu.

Edonola ere, lanean aurrera egin ahala, epe horren aurreko eta ondorengo hainbat gertaeraren aipamenak sor tu dira, noski; ask otan ezinezkoa baita gure protagonisten istorioak uler tzea aurretik edo ondoren izandako esperient zie- tara jo gabe.

1.3. Metodologia

Emakumeek garapen prozesuari egindako ekarpena zehazki aztertzen duen bigarren mailako iturririk ez dagoenez, eta lanaren testui ngurua zehazte- ko bildutako informazioa alde batera ut zita, lehen mailako iturrietatik abiatu gara lan honetan, emakumeei berei har tutako testigant zetatik, hain zuzen.

Kasu honetan, metodologia kuantitatiboa erabilt zea ez da oso egokia, lan honen xedea ez baita zenbait gizarte gertaera kuantifikatzea; kontua ez da neurtzea, baizik eta 1930-1950 ur teen bitartean, gutxi gorabehera, jai- o- tako emakumeen diskur tso deskriptiboak bilt zea, garrantzizko aldia bizi izan baitzuten herriaren garapenari dagokionez.

Hortaz, erabilitako metodologia kualitatiboa izan da. Emakumeei elkar-
rriketa sakonak egin zaizkie, eta horien bitar tez, ikerketaren protagonistek
prozesu horretan beren buruari buruz duten ikuspegia jaso ahal izan dugu. 50
urtetik gorako emakumeei egin dizkiegu elkar rizketak, 20 gutzira.

Gai horri dagokionez, ezinbestekoa da aipatzea emakumeak oso
abegitsuak izan direla eta beren bizitza sartzan utzi digutela. Bestalde,
emakume horiek berak izan dira beste emakume altsasuar batzuen bizitzen
kontakizunetara iristeko lotura eta bidea.

1.4. Egitura

Gaika bildu ditugu gure protagonistek kontatutako esperientziak.

Testigantza eta testu gehienak lanaren alor rekoak dira, era ofizialean oinarritutako lanari dagozkionak zein onartu gabeak, diruz ordainduak zein ordaindu gabeak, izan ere, emakume horiek era askotako esperientziak bizi izan dituzte, eta ezkutuan eduki dituzte askotan.

Ondoren, erlijioaren alorrarekin lotura duten esperientziak jaso ditugu, eta baita alor horrek bizitza pribatua izan duen eraginari buruzkoak ere; izaera publikoa duten jarduerak –hala nola, politikan eta era askotako taldetan parte hartzea, aisiarako denbora-, eta azkenik, familia asko herrira iritsi zireneko oroitzapenak; iritsi berrien ikuspegia eta bertan bizi zirenen ikuspegia, biak hartu ditugu kontuan.

2. LANA

Urte horietan Alt sasuko emakumeek lanaren alorrean egindako ekarpena datu ofizialei begiratuta pentsa zitekeena baino askoz ere garantzitsuagoa izan da. Estatistika ofizialek erakusten zuten errealitatearen eta emakumeek egindako jardueren² arteko distortsio hori oso nabarmen ikusten da emakumeek XX. mendean zehar izan zuten bizitzari buruzko hainbat eta hainbat lanetan. Hala adierazten du, esate baterako, Pilar Perez-Fuentesek³: *Gauza jakina da zenbaketa eta estatistika ofizialek "lan munduaren errealitatea baino gehiago gizarte jokabideak "zer izan beharko luketen" erakusten dutela*". Lan horren ideia nagusiak adierazten du gizarte industrialean lana sexuaren arabera banatuta dagoela; banak eta horren arabera, ekoizpenaren alorrean du gizonak bere lekua (*Breadwinner* edo *Ogia irabazten duena*), eta emakumeek, berriz, gizarte erreproduzio lanetan (*Etxeko andreak*), lan indarraren mantenimenduan eta seme-alaben zaintzan. Eredu hori bat dator, bestalde,

2. ARBAIZA VILALLONGA, Mercedes. *Orígenes culturales de la división sexual del trabajo en España (1800-1935)*. In: SARASUA C., GALVEZ L. *¿Privilegios o eficiencia? Mujeres y hombres en los mercados de trabajo*. Alacanteko Unibertsitatearen Argitalpenak. 2003. 194. orrera.

3. PEREZ-FUENTES HERNANDEZ, Pilar. *Ganadores de pan y amas de casa: los límites...* 217. orrera.

eremu publikoaren eta pribatuaren ar teko gizartearen banaketarekin (lan honen sarreran azaldua) eta gizonezko zein emakumezkoek banaketa horretan hartzen duten lekuarekin.

Baina aipatzen dugun eredu hori guztiz teorik oia da, garai hartako errealitatean ezin aplikatu daitezkeen, estuak zirela zirela zirela, batez ere. Hainbat ikerketek adierazten dutenaren arabera, eta elkarriketatutako emakumeek diotenaren arabera, oso zaila zen familia aitaren edo senarraren soldatarekin bakarrik aurrera ateratzea, eta beraz, emakumeek askotariko estrategiak erabili behar izan zituzten egoera horiei aurre egiteko. Oso zeregin zaila zen; familiaren behar bereak behar ziren, baina ez zuten aurrerian gelditu behar familia ezin zela aurrera ateratzea soldatarekin.


Lan hitza zehazteko zailtasunak batetik, eta bestetik, estatu frankistak hartu eta era guztiz erakoharente legerian txertatu zuten lanaren banaketa eta sexualaren oinarri ideologikoa, lagungarriak izan ziren, maila handi batean bederen, datu ofizialen eta emakumeek bizitako egoera errealen arteko desfase horretan.

Eta hori da Alt sasuko herriaren kasua, J. Amilibia Salgado eta N. Arbizu Gabirondoren Altsasu-Alsasua lanean ikus daitezkeen bezala. Estatistika ofizialetan bildutako datuek honela deskribatzen dute 1975. urteko egoera:

“20 eta 65 urte bitarteko gizonezkoen ia %100 lanean ari dira, emakumezkoak, aldiz, oso gutxi dira lanean ari direnak, eta gehienak gazteak dira. Horiek dira “emakumea etxean” eskema tradizionala hausten joan direnak”.

Tradizioz, emakumeak lan egindua, eta asko gainera (landan, animaliak zaintzen, etxean, etab.), baina ez lantegietan (nomina bat kobratzen). Batez ere 60ko hamarraldiaz geroztik hasi da emakumea nominaren truke lan egiten, nahiz eta horietako askok, ezkontzean, eta batez ere seme-alabak edukitzean, nahiago duten etxean lan egitea”⁴.

Lan horretan bertan, 1975. urteko enpleguari buruzko datuak ageritzen dira, sektore produktiboen arabera banatuta:



4. AMILIBIA SALGADO, J.; ARBIZU GABIR ONDO, N. *Altsasu-Alsasua*. Altsasuko Udala; Caja de Ahorros de Navarra. 1997. 94-95 eta 127. orr. r.

Gai horri buruz ari garela, interesgarria litzateke urte horietan indarrean zen legeriari buruzko errepasso laburra egitea, emakumei dagokiena bereziki.

50/60/70EKO HAMARRALDIETAN EMAKUMEEN LANARI APLIKATZEN ZITZAION LEGERIA ETA ARAUDIA

Aurretik aipatu bezala, estatu frankistaren oinarri ideologikoaren arabera, nazional-katolizismo deituaren arabera alegia, emakumearen zeregin nagusia etxean lan egitea zen. Eta FFR alangearen *Sección Femenina* delakoak emakumei formazioa eskaintzen zien hainbat gaitan, besteak beste, etxeko ekonomia, haur-artzazailtza, sukaldaritza, etab., eta goi mailako ikasketa gisa, berriz, erizain eta maisu ikasketak proposatzen zizkien (etxeko andrearen berezko funtzioak eremu publikora zabaltzen zituzten).

Zehatz-mehatz adierazten ez bazen ere emakumeek etxetik kanpora ezin lan egin zutenik, eta halako debeku zehatzik ez bazegoen ere, hainbat neurri hartu ziren hori zigortzeko. Pilar Perez-Fuentes-ek⁵ adierazten duenaren arabera, debekatuta zegoen emakumeak langabetuen zerrendatan sartzea (halabeharrendaren ondorioz familia buru zihardutenen kasuan izan ezik); eztei mailegu handiagoak ematen zitzaizkien, baldin eta emakumeek hitz ematen bazuten beren lana utzi ziko zutela ezkontza ondoren; lana ezkontza uzten zuten emakumei ezkontsariak ematen zitzaizkien, eta emazteak lan egiten ez bazuten eta ofizialki "etxeko lanak" kategorian profesionalaren barruan izena emanda bazuten, hainbat diru laguntza ematen zizkioten familia buruari.

1961. urtean, erakundeen eragozpenak kontuan hartu gabe lan munduan gero eta emakume gehiago sartzen zirela ikusirik, Emakumearen Politika, Lanbide eta Lan Eskubideen Legea onartu zen, emakumea lanean baztertu ez zedin arautzeko. Hala eta guztiz ere, emakumeek lan egin nahi bazuten, ezinbestekoa zuten senarren baimena.

Gauzak horrela, zuzen-zuzenean neurri horien eraginpean zeuden emakume guztiak ez zuten bide beretik jo. Mercedesek, esate baterako, aseguruirik eta ordutegi zehatzik gabe lan egiten zuen enpresa batean. Salamanca jaioa zen bera, eta Gipuzkoan bizi izan zen behin betiko Altasun kokatu zen arte. Bere familiari ez zitzaion komeni bere lan egoera erofizialean adieraztea, izan ere, halakorik eginez gero, galdu egingo baitzuten senarrak jasotzen zuen diru laguntza, eta laguntza haren zenbatekoa handia zen, soldatekin alderatuz gero:

"Kontua da garai hartan emakumeek ezin zutela lan egin; puntu batzuk ordaintzen zizkiguten... puntu batzuk, eta jakiten bazuten emakumeak lan egiten zuela, kendu egiten zizkizuten. Eta nik, lantegi hartan lan egiten nuenean, diru gehiago irabazten nuen puntuen bitartez lanagatik beragatik bai no"⁶.

5. PEREZ-FUENTES HERNANDEZ, Pilar. *Ganadores de pan y amas de casa: los límites...* 223. orr.

6. Altasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/03/11.

Esan digu Mercedesen senar rak.

Luisak, 60 urtetik beherakoa bada ere, beste era batek o zailtasunak izan zituen 70eko hamarraldiaren erdialdean. Ezk ontzea erabaki zuenean, uko egin zion ezkontzeagatik lantegian zegokion ezk onsariari, argi bait zeukan ez zuela lana utziko ezkontzeagatik:

“...dena zehaztuta zegoen, ezkondu eta lana uzten zenuen, hori zen garai hartan ohikoena (...) Orduan, nik gogoan dut, ba, nik oso argi neukan ezetz... nik lanean jarraituko nuela (...) Ez zen oso ondo ikusten, ordea... garai hartan zegoen, nik uste, zera... ez dakit hit z egokia hori den, baina matxismoa, bazirudien gizonak mantendu behar zuela, gizonak mantendu behar zuela emaztea” ⁷.

Luisak aipatu bezala, oso gut xik jarraitzen zuten lanean ezk ondu ondoren (berak 70eko hamarraldiaren hasieran kokatzen du gertaera hori), eta haurdun gelditzen zirenean, ia gehienek lana uzten zuten. “...Enpresa batean lanean, haurdun, uste dut ni izan nint zela lehenengoetak oa”.

Luisak oztopo burokratik o asko gainditu behar izan zituen bere gizarte segurantzako txartelarekin senarrari osasun estaldura emateko, izan ere, hark kotizatzen ez ziren lanak egiten bait zituen. Luisak gauza bakar ra zuen gogoan, bere senarrak egoera hor retan gorabeheraren bat izaten bazuen, ez zuela Gizarte Segurantzaren estaldurarik izango:

“Gizarte Segurantzara joan nint zen eta nire t xartelarekin babesterik banuen galdetu nuen; nik esaten nien, ba, emakume bat et xean zegoenean eta bere senarra lanean zegoenean, emaztea senar raren txartelaren barruan egoten zela, hori zen ohikoena (...), eta nik esaten nien, ni lanean banago eta bera et xean, zergatik ez da alderant ziz ere egiten, ez? Ez dut sekula ahaztuko hartu ninduen gizonak jarri zuen arpegia; irribarre ziniko samarraz esan zidan, *Eta zure senarra?* Eta nik erantzun nion, nire senar ra etxean da, ohea egiten, janaria prestat zen, eta ni lanean ari naiz. Eta hori desohorea al da? Eta orduan gogoan dut ziurtagiri bat eskatu zidala Udalek oa, elkarrekin bizi ginela ziur tatzeko, familia libur ua eta gauza asko... eta baita aitor pen bat ere, hori izan zen gehien har ritu ninduena, alegia, senarraren zinpeko aitorpena emaztearen t xartelaren babesaren onar tzen zuela adieraziz. Hura izugarria iruditu zitzaidan!”.

Estaldura hori, ordea, sei hilabeterak o ematen zioten; ondoren, berritu egin behar zen eskaera, eta aurretik eramandako agiri guztiak aur keztu behar ziren berriro. Bi ur tez aritu zen hor rela, eta behin betik o eman ziez aioten ere egin zuen eskaera (titular ra gizonezkoa zenean egin ohi zen bezala); azkenik, onartu zioten, baina handik gut xira senar ra kotizatzen hasi zen ber riro ere.

Ez zen ondo ikusten emakumeak et xetik kanpo lan egitea, non eta ez zen ezinbesteko premiaren ondorioz; kasu hor retan, zalantzan jartzen zen familia buruaren zeregina, etxea mantentzearen zeregina hain zuzen. Josefak adierazi digu lan egiteko aukera sortu zitzaionean, senarrak lanera ez joateko erabakia hartzera bultzatu zuela.

7. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2004/11/23.

Beraz, ikusten denez, emakumezkoek etxetik kanpo lan egitea zehazki debekatzen ez bazen ere, Estatuak neurri asko hartu zituen zailtasunak jartzeko.

Etxera soldata ekar tzen zuen familia buru gizonezkoak eta etxeko lanetan eta familiako kideak zaintzen zituen emazteak osatutako familia ereduak, ordea, eramaten zaila zen gizarte maila umilentzat. Egoera horretan, emakumeek era askotako estrategiak hartu behar izan zituzten aurkera eragiteko. Hurrengo ataletan, Altsasuko emakumeek beren familien eta komunitate osoaren, bizi iraupenari eta garapenari egindako ekarpenaren hainbat alor aztertuko ditugu (horietako batzuk ezkutukoak).

2.1. Lanbidez “etxeko andrea”

Atal honetan, emakumeek etxearen eremuan eta familiaren alorrean egin duten lana nabarmendu nahi dugu. Kasu gehienetan, emakumeak ez dira soil-soilik zeregin horietan jardun, eta askotan, lan horiek etekin materiala ematen zuten beste batzuekin nahastu ohi ziren (landak o lanak edo familiak o negozioak).

Gurekin hizketan jardun duten Alt sasuko emakume askok lanaren merkatuan edo etekin ematen duten lanetan aritu dira, baina denek izan dute etxeko lanen eta familiaren zaintza zaren ardura guztia. 50-70eko hamarraldien bitartean gizonezkoek alor horietan betetzen zuten papera guztiz anekdotikoa zen, eta gainera, ez zen oso ondo hartzen garai hartan. Honela azaldu digu Luisak bere esperientzia:

“...gogoan dut garai hartan bizilagun nituenak, lanak banatzen genituenean, senarrak arropa zabaltzen zuela,... bada, oso gaizki ikusten zuten, *Jo! Arropa zabaltzen edo hautsak entzen!*”⁸.

Familiaren eremuan tradizioz bete izan diren zereginen artean, honako sailkapen hau egin daiteke:

- Etxearen mantentze-lanak (garbiketa, sukaldea, gauzak konpontzea, janaria eta beste hainbat gai erostea, diruaren administrazioa, etab.).
- Familiako kide gazteenak zaintzea eta hezteko helburuak zuten lanak.
- Familiako zaharrenei edo ezinduei laguntzea, eta baita familiako gainerako kideak zaintzea ere.

Azken bi multzo horietan jarri nahi dugu arreta, garrantzi handia baitute komunitate baten garapenean.

Seme-alabak batez ere emakumeek zaintzen zituzten, eta kontuan hartu behar da oinarrizko zereginak dela gizar te taldeen garapenean, lan handia egin baita haurrei taldeko balioak, ezagutzak, tradizioak eta arauak helarazten.

8. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2004/11/23.

Zentzu horretan, emakumearen egitek oa funtsezkoa izan da ideiei eustek o zereginetan, eta baita horiek aldat zekoan ere; izan ere, emakumea zen funt zio horretan jarduten zuen bakar retakoa, bereziki ik erketa lan hone k aztertzen duen denbora bitar tean, baina baita gaur egun ere.

Familiako kide guztiei oro har eta zahar rei edo gaixoei bereziki, zaintzeko zereginari dagokionez, nahitaez azpimar ratu beharra dago emakumeen lana funtsezko oinarria dela gizar tearen egituraren bar ruan, baita gaur egun ere; gai horietarako zerbitzu profesional ugari badaude ere, emakumeak betet zen ditu laguntzaren alorreko sistemaren gabezia ask o eta ask o. Beraz, Estatuak gaur egun oraindik ez badu zeregin hori betetzeko behar adina baliabide jarri gizar tearen esku, argi dago lan horiek 50 eta 70ek o hamarraldietan ia soilik emakumeek egiten zituztela gizar te talde umilenen ar tean, eta e z zutela horren truke inolako ordainik jasot zen.

Carmenek gogoan du nola ibili behar izaten zuen dendatik et xera itzultzen zenean (ber tan lan egiten zuen goiz eta ar ratsaldez) bere familiaz arduratzeko:

“Beno, lanetik et xera etortzen nintzenean, ez nintzen eseri ere egiten, egu-nero eskolara joaten ziren ar ropa haiek guztiak, gauza haiek gu ztiak antolatu behar ziren. Garbi joan behar bazuten, ondo zeuden edo ez begir atu behar zen. Nik igandeak et xean ematen nituen, pasaratu behar bazen, edo g auzak egin behar baziren”⁹.

Mariak ere aipatu digu zenbat denbora behar zuen et xeko zereginak egiteko; zeregin horien ar tean, arropa josten edo garbit zen ematen zuen denbora gehien. Gazteagoa zenean, amarekin joaten zen garbitegira, baina ezkondu eta gero, etxean garbitzen zuten arropa, eskuz:

“Eta eskuz garbitu, pentsa! den-dena, dena (...) Ama garbitegira joaten zen garbitzera, nire et xean urte askoan ez genuelak o urik eduki sukaldetan; orduan, gauean, ama eta ni, edo nire ahizpa, garbitegira joaten ginen”¹⁰.

Kontuan hartu behar da, gainera, garai har tan etxe berean gaur egun baino kide gehiago bizi zirela, batez beste; seme-alaba gehiago edukitzeaz gainera, senar-emazteen aita-amaginarrebak edo gurasoak ere elkarrekin bizi ziren, eta ask otan, senide ezkongabeak ere et xe berean izaten ziren.

Atal honetan emakumeek beren et xean egiten zuten lana azpimar ratu nahi dugu, azken batean. Ur te horietan emakumearen berezko lantzat hartzen zen hura, eta hor taz, ez zen oso aint zat hartzen. Horrez gainera, azpimarratu beharra dago, urteen joanean lan hori ez aitor tzetik (emakumeen berezko zeregintzat hartzen baitzen), denbora osoko etxeko andreen lanari zent zu gutxiesgarria ematera igaro garela.

9. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2005/02/02.

10. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2004/10/26.

2.2. Landa lanak

Altsasuk XX. mendean zehar izan zuen garapen prozesuak lotura zuzena izan zuen XIX. mendearen amaieraz geroztik, eta industria sektorearen sendotzearekin¹¹.

Prozesu horren bitartez, aurretik aipatu bezala, herria asko aldatu zen; oinarrizko euskarri nekazaritza eta abeltzaintza izatetik, industriako jarduerak nagusi zera igaro zen, eta lehenengo horiek osagarri gelditu ziren, baita desagertu ere batean baino gehiagotan. Hala aipatu zen da J. Amilibia Salgado eta N. Arbizu Gabirondoren *Alsasua-Altsasu* liburuan:

“Industria horien guztien eraginez, Altsasun, eta bailarako gainerako herrietan, ekonomia jarduera aldatu zen joan zen, eta langile herria bihurtu zen, nahiz eta nekazaritza eta abeltzaintza lanei eutsi zitzaizkien”.

Edonola ere, elkarriketatutako emakume askok gogoan duten Altsasuko (50eko hamarraldiaren ingurukoa) nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotura zuten herriaren ezaugarriak ditu.

Josefak gogoan du 1957. urtean, Altsasura iritsi zenean, nola ikusten ziren gurdiak kalean. Txarok ere honela dio: “Baina denek zituzten (abereak); nire etxean 3 eta 4 behi izaten genituen...”¹².

Ana urtebete zuela iritsi zen Extremaduratik Altsasura, eta honela gogoratzen du haurtzaroa Ferial kalean:

“...hemen Altsasun, etxe guztietan izaten zuten ganadua; behiak, zerriak, eta denak gurekin batera bizi ziren...”

“...ganadua, oiloak, untziak, gu, apopiloa, goikoak, behekoak (...) *Aizu, belar bila joan behar da* esan, eta auzokoarentzat belar bila joaten ginen...”¹³.

Anak garai horren oroitzapen polita du. Abereen eta soroen jabe batez ere herrian jaiotako auzokoak izaten zirela dio, baina, hala eta guztiz ere, beraiek ere auzokoen lanetan parte hartzen zutelako gogoratzen du, eta familia handi bat bezala zirela dio.

Dena dela, Anak adit zera eman digun irudi gutxi asko bukolikoa ez dator bat, inondik ere, Pilarrek 1957. urtean, Cacerestik etorri zenean, izan zuenarekin. Pilar Caceresk o landa inguru batean jaioa zen, baina hura Altsasukoaren oso bestelakoa zen; jaioterrian, nekazaritza eta abeltzaintza lanak herri gunetik urrun egin ohi ziren. Honela gogoratzen du Pilarrek iritsi berrikan herriari hartu zion itxura:

11. AMILIBIA SALGADO, J.; ARBIZU GABIR ONDO, N. *Altsasu-Alsasua*. Altsasuko Udala; Caja de Ahorros de Navarra. 1997. 115-122. orr. r.

12. Altsasun egindako elkarriketa. Data: 2005/02/04.

13. Altsasun egindako elkarriketa. Data: 2005/02/10.

“...lehenengo gauza, ez zegoen ia et xerik, herria oso txikia zen (...) ahunt zek elizaren atarian lo egiten zuten, eta dena behi kakaz beteta zegoen; hemen landakoak zirenek zata zapatak eramaten zituzten...”¹⁴.

Herriaren eszena bera era askotara ikusten zuten emakumeek, norberaren egoeraren arabera, noski; Pilarren kasuan, esaterako, senarrak hartu zuen Altsasura bizitzera etortzeko erabakia, eta bera ez zegoen ados; horrez gainera, bertan egin zituzten lehenengo hirurteak oso gogorak izan ziren, senarra ospitalean egon zen eta bera bakarrik moldatu behar izan zen hiruralabekin.

Dena dela, emakumeek, bai Altsasu bertakoek bai helduak zirela herriera etorritakoek, nekazaritzaren alorrean egindako lanarantz handikoa izan zen.

Gutxi deigarria da ikustea emakumeek nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin zerikusia zuten lanak egiten zituztela, izan ere, horrek zalantzan jartzen du emakumeak ahalegin fisiko txikiagoko lanak egiten zituztela dioten teoria. Pilar Perez-Fuentes Hernandezek *Ganadores de pan y amas de casa: Los límites del modelo de Male Breadwinner Family. Vizcaya, 1900-1965*¹⁵ liburuan adierazten du emakumeak Bizkaian erabat bazterturik gelditu zirela meatzaritza eta metalgintzaren sektoretik, sektore horiek gizonetzat hartzen baitziren, gaitasun fisiko behar zutelako. Elkarrizketatutako emakumeek egiten zituzten lanak buruz esandakoek erakusten digute ahal egin fisiko handia behar zela horietako askotan. Testuinguru horren barruan uler daitezke emakumezkoak erahartako lanetan aritzeagatik “maskulinizatzen” dituzten espaldak.

Mariak, adibidez, honela dio: “...nire etxean ama zen gizonetzatoa...”¹⁶. Aitak 19 urte zituela hanka bat galdu zuen, eta beraz, amak zuen nekazaritzako lanak zama guttia. Paulettek landan egin behar zituen lanak buruz honela esan digu “...gizon batek bezalaxe”; amarekin joaten zenean mendira, eta amak ez zuenez lehenik era horretako lanak egin, Paulettek hartu zuen bere gain lan horien erantzukizuna “...garai hartan nintzen gizona”¹⁷.

Bizibidea bereziki nekazaritzatik ateratzen zuten familietan, garrantzizko zeregina betetzen zuten emakumeek (gizonetzatokoek betetzen zutenaren antzekoa); baina familia burua industrian jarduten zuen etxeetan, emakumeek lehenengo sektorean egiten zuten lanak ziren nagusia. Antzez gertatzen ziren senarra etxetik kanpo zenean etxeetan (gerra zibilaren garaian esaterako), edo gizonetzatokoak nolabaiteko ezintasun fisiko zuten etxeetan, Mariaren gurasoen kasuan, adibidez.

14. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/01/15.

15. PEREZ-FUENTES HERNANDEZ, Pilar. *Ganadores de pan y amas de casa: los límites...* 219-221. orr.

16. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2004/10/26.

17. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/01/05.

Era askotako lanak egin behar izaten zituzten, baina lehen esan bezala, gehien-gehienetan ahalegin fisik o handia egin behar zuten.

Paulettek egiten zituen hainbat lan deskribatu dizkigu:

“Uff! gizonetzko batek bezalaxe, gurdian belar ra, egurra, jarri; gurdiak egur rez bete. Ama eta biok joaten ginen, eta amak asko zekien, baina nekazaritzako kontuei buruz gutxiago, ez bait zen halakoetan ibilia; beraz, ni nint zen gizonetzkoa (...) aizkorarekin bai, baina motozer rarekin ez, Eh? (...) Eta gero, igandetan, denek berdin egiten genuen, aita eta biok egur ra mozteko astoarekin, horietako trontza batekin, aste osorak o egurra prestatzera”¹⁸.

Txarok ere kontatu dizkigu soroan eta abereekin izandak o hainbat bizipen:

“...Lana? Egin behar zen guztia, erditzeko zegoen zer ria zaindu, jaten eman, pentsua ekarri; bien bitar tean, senarra lanean zegoen (lantegi bate an) eta nik ahal nuen guztian lagunt zen nion”.

“...et xean 3 eta 4 behi genituen, eta goizetan mendira joan behar zen behien bila, eta nik denetik egin dut. Goizean et xean gelditzen nintzen (anai-arrebak zaintzen) ez bazen zerbait egin behar, belar bila joan edo hor relaxorik (...), baina bazkalostean, eguzkitan gal-gal, amarekin sorora joan behar izaten nuen, aitak lo egin behar bait zuen”.

“Behiak erditzen ere aritu izan naiz, bakarrik; bakarrik aritu izan naiz zer riak erditzen...”¹⁹.

Interesgarria da aipat zea landa lan horiek Alt sasutik kanpo bizi izandak o emakumeek ere egin behar izan zituztela, batez ere Extremadurat ik etorriek; baina, lurraldeen arteko aldeak kontuan hartuta, lanak ez ziren berdinak kasu batean eta bestean. Pilar rek era honetara ditu gogoan 10 ur te inguru zitue-neko kontuak:

“Segat zera joaten ginen, garia jor ratzera (...) Garia honela dagoenean, belarra kentzen hasteko moduan, horri esaten zaio jor ratzea; batzuek eskuz kentzen diote, baina jorraia eraman behar da. Beste bat zuetan barbantzuak ereiten genituen, pata-tak, ezkurak biltzera joaten ginen, olibak bilt zera, egin behar zen guztia...”²⁰.

Mercedes Salamancan jaioa da, eta herriko familia gehienek pata tak, garia, garagarra ereiten zituztela eta ganadu bur u bat zuk izaten zituztela aipatu digu.

Kapitulu honetan, bestalde, Luisaren bizipenak ere bildu ditugu. Luisak (57 urte) honako oroitzapen hauek ditu aldak eta urte haiei bur uz, alegia, nekaza-ritzako lanak alde batera ut zi eta industriak o lana gailent zen joan zen garaiari buruz. Kontuan eduki behar da bere familia (bere gurasoekin bat era) era esclu-siboan lehenengo sektorean ziharduen familia bakar renetakoa zela:

18. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2005/01/05.

19. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2005/02/04.

20. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2005/01/15.

“Uste dut ahizpa eta biok izan ginela, uste dut, soro lanetan a ritu ginen azketakoak”.

“Gainera, uste osoa dut, garai har tan laborantzan aritzen zirenak, ba... nik apur bat marjinatuta ikusi izan dut beti nire burua”²¹.

Luisa da elkarrizketatu ditugun emakumeen artean gazteenetakoa, eta haren aurreko belaunaldien artean guztiz ohikoa zen amaren etxearen jardueran nagusia nekazaritza izatea; 50 eta 60 urte bitarteko emakumeei dagokionez, gehienak era horretako lanetan arituak dira gurasoen etxetan; baina lan osagarriak izan ohi ziren, gizonezkoek bereziki industrian betetzen zuten zereginaren osagarri hain zuzen.

Atal hau amaitzeko, ezinbestekoa da azpimarratzea emakumeek nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorrean egin zuten ekarpena funtsezkoa izan zela lan honetan aztertzen den garaian. Halaber, azpimarratu behar da familia askoren mantenuan lehenengo sektoreak izugarriko garrantzia zuela, eta kasu askotan osagarria bazen ere, oinarriko gehigarria zela etxe askotan.

Azkenik, kontuan hartu behar da ikerketa honetan aztertzen dugun aldiaren lehen sektorea ez zegoela arautua (gizarte segurantzari dagokionez), eta are gutxiago, kontuan hartuta familia buruaren soldatapeko lanaren osagarria zela. Era horretara, lanaren sarreran aipatu dugun bezala, kasu honetan ere emakumeak ezkutuko lan merkatuan parte hartzen zuten, inolako egiaztapen ofizialik lortu gabe.

2.3. Apopilotza

Emakumeek lanaren alorrean egindako ekarpenari buruzko azterketarekin jarraituz, beharrezkoa da “ostatatzea” edo “apopilotza” izeneko fenomenoaz zehatz aztertzea. Apopilotza esaten zaio familia etxean familiatik kanpoko pertsona bat edo bat baino gehiago bizitzea, ostatuaren, janariaren eta eguneroko gainerako beharren truke (arropa garbitzea eta konpontzea, gela garbitzea...). Era horretara bizi ziren pertsonen “apopilotza” esaten zitzaizkien eta horiek zaintzeaz arduratzen ziren etxeko andreei “ugazabandre” edo “patrona”.

Fenomeno hori industria bizkor hazten zen eremuetan eta aldieta n gertatzen zen batez ere, eta horrela adierazten du Rocio Garcia-Abadek *“Mercado de trabajo y Estrategias Familiares en las mujeres durante la primera industrialización vizcaína: El Hospedaje”* lanean²²:

“Ostatatzea edo apopilotza emakumezkoen eginkizuna zen, eta garantzizko funtzio ekonomikoa betetzen zuten familiaren barruan, baina baita garantzizko funtzio soziala ere”.

21. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/11/23.

22. GARCIA ABAD, Rocio. Mercado de Trabajo y Estrategias Familiares en las mujeres durante la primera industrialización vizcaína: el hospedaje. In: *Vasconia*. 28. zk. 1999. 93-115. orr.

Industria asko hazten ari ziren gunetara lekualdatutako langileak f nkatzea eta horiek gizar teratzea errazten zen sistema hor ren bitartez.

Apopilotza emakumeek erabilitako estrategia bat zen, beren familiaren bizi iraupena ziurtatzeko; izan ere, emakume ezkonduen soldatepeko lana, industriaren alor rean batez ere, ia ez zen existitzen, ez behintzat era of zialean.

Rocio Garcia-Abadek egindako lana XIX. mendearen amaierari bur uzkoa da, eta Bizkaian kokatzen da, lehenengo industrializazioaren aldiari, hain zuzen. Dena dela, lan horietan azaltzen diren ideia gehienak 50-60ko hamarraldietako Altsasura ere egokitu daitezke. Azpimarratzekoa da, bestalde, apopiloak hartzen zituzten emakumezko gehienak Espainia hegoaldekoak eta erdi aldekoak zirela (Bizkaian, lehenengo industrializazio prozesuan gertatu bezala).

Horrez gainera, bada beste antzekotasun bat Alt sasun landan jaiotako emakumeen lanaren eta beste leku batzuetatik etorritako emakumeek apopilotzaren eremuan egindako lanaren artean: bat zein bestea familiarren bizi iraupenerako estrategiak ziren. Gar rantzizko ekarpena ziren alderdi materialari dagokionez, baina ezkutuko merkatuaren barruan betiere. Emakumeek beren denbora guztia familiari eskaini behar ziotela oinarri zuten eredu bat betetzen zuten etxeko andreak ziren emakume haiek, baina apopilotzaren bitartez, benetako zailtasun ekonomikoaren aurrean, gizarte eredu kolokan jarri gabe etekinak lortzeko formulak bilatu behar izan zituzten.

Beste lekuetatik etorritako emakumeek beren etxeko beste familia batzuekin partekatzen zuten ohitura zuten (batez ere herrian egiten zituzten lehenengo urteetan), eta errazago hartzen zituzten langileak beren etxean, eta arreta eta ostatu zerbitzuak emateko prest egoten ziren. Halaber, kasu askotan, apopiloak familia hartzaileen jaioterrietakoak edo hurbilekoak izaten ziren.

Edonola ere, garrantzizko ekarpen ekonomikoa ziren familientzat, baina aldi berean, lan zama handiagoa emakumeentzat; lan hori ezkutukoazenez, gurekin hitz egin duten eta beren etxean apopiloak izan zituzten emakume gehienek ez dute apopilotza lan gisa aipatzen, eta zehazki hori buruz galdezten zaienean bakarrik aipatzen dute.

Anak (52 urte) oso gogoan du bera gaztetxo zela nola bizi ziren apopiloak bere etxean eta zer lan egiten zuten bere amak:

“Amak, eta beste familia askok, dirutxo irabazteko asmoz, ez bait zuten lan egiten, apopiloak hartzen zituzten etxean (...) Guk, zortzi bat gizon izan genituen etxean, zortzi gela batean lotan, eh? (...) Eta nire amak bazkaria egin eta arropa garbitzen zien”.

“Gu gazteak ginen, eta berak egiten zuten dena. (...) Hemen Extremadurako gehienak, hemengoek, hemen jaiok ez, Extremaduratik etorritako gehienak genuen jendea horrela, hemen Alt sasun lan asko egon baitzen”²³.

23. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/02/10.

Anabelek lau apopilo izan zituen bere ardurapean, denbora tarte laburrean izan bazen ere:

“Lanera joateaz gainera, behin, lau apopilo ere izan nituen garai batean etxean (...) Lehenbizi bi etorri ziren, eta hain gustura zeuden, beste bi ekarri zituztela, eta gehiago ez, ez nuelako ohe gehiago (...) Eta diru harekin etxeko altzariak erosi ahal izan nituen, apopiloekin ateratak o diruarekin erosi nituen altzariak (...) Denbora gutxian eduki nituen, lan asko baitzen”²⁴.

Mercedesek ere kontatu digu berak izan zuen esperientzia:

“Han (Hernanin) zazpi apopilo izatera iritsi nintzen (...) oso etxe handia genuen, bost gela zituen (...) lau seme-alabekin... egia esan behar izan zen (lana), baina, begira, jan gure etxean egiten zuten, eta lo... bi edo hiru etxean lo egiten zuten, eta gainerakoak solairu bereko beste bizilagun baten etxean lo egiten zuten. Han egiten zuten lo, baina bazkaria nik ematen nien, eta arropa nik garbitu, lisatu eta dena, nik egiten nuen”²⁵.

Kontatu digu seme-alabez eta apopiloek gainera, gurasoak bizi zituzten etxean. Era honetara defintitu du etxe hartako bizimodua: “Ba, pentsatu, jabetxe bat zirudien, baina jabetxe pobre bat”. Mercedesek bizilekua Alt sasun hartu zuenean ere bi apopilo izan zituen, denboraldi batez.

Altsasun, industria bizkor hazi zen inguruetan gertatu ohi zen bezala, apopilotzaren fenomenoak garerantzi handia izan zuen urte haietan. Fenomeno hark emakumeengan zuen batez ere eragina, eta bereziki heriotz kanpoko emakumeengan (beste kasu batzuetan gertatu bezala). Etxean lan egiten zuten, produkzio prozesutik eta lan merkatutik urrun, etxeko andrearen paperari eutsiz; familiarentzat oinarrizkoak ziren diru sarrerara osagarriak lortzeko balio zuen estrategia hark.

2.4. Familia negozioak eta beste baliabide batzuk

Atal honetan hainbat emakumek lanaren eremuan, baina familiaren inguruan, izan zituzten esperientziak bildu nahi izan ditugu.

Lan honetan parte hartu duten Alt sasuko emakumeekin hizketan jardun ahala ohartu gara, hainbat emakumek familia burua (gizonezkoa) titular bakartzat zuten negozio edo lanetan parte hartu zutela, nahiz eta emakume horiek era aktiboan parte hartzen zuten negozio horietan. Alor horietan emakumeek egindako ekarpena garrantzi handikoa izan zen, baina, kasu gehienetan, ezkutuan gelditu zen, maila ofizialari dagokionez batez ere. Hainbat adibide bildu ahal izan ditugu egoera horiei buruz.

24. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/02/21.

25. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/03/11.

Margarik, esate baterak o, urte askoan bere familiaren errotan lan egin zuen, eguna joan eguna etorri, baina ordainetan, ez zuen inolak o kotizaziorik jaso.

Paulettek familiaren hainbat negoziotan lan egin zuen; erretiroa hartu baina lehenago, hain zuzen, harategi bat izan zuen senararekin batera, eta ordukoa izan zen bere erretiroa lortzeko izan zuen kotizazio bakarra, nahiz eta aurretik urte askoan lanean jardun zuen inolak o asegururik gabe:

“Eraikuntza materialen biltegi bat genuen, eta etxean genuen (...) makina bat zementu tona deskargatu nituen, asko”.

“Orduan, bururatu zitzaion (senarrari) zorua litzateke makina bat erostea, eta horrela hasi ginen (...) eta oso lan txarra zenez, jendea hartzen genuen, baina joan egiten zitzaigun; batzuetan, lan bat hasi eta bertan behera uzten zuten dena. Gazte asko etorzen ziren, bi egunetan lan egiten zuten, eta laneko jantziak, zapatak eta dena uzten zuten, eta ez ziren berriro ezertarako itzultzen (...) Horretan, negozioan gehiago sartzea erabaki nuen, eta laguntzea, lanean laguntzea. Eta urte asko igaro nituen horretan, hogeitunetik gora egin genituen lan horretan”²⁶.

Angela eta Rosa ahizpak ere urte askoan jardun zuten aitaren izenean zegoen zapata dendan, baina Gizar te Segurantzaren agertu ere egin gabe.

Angelak aipatu digu familiaren zapata dendan lan egin zuen urteetan ez zuela egun bakar bat ere kotizatu.

Rosak ere gogoan du hori:

“Autonomo! Nola? Ez zenuen inoiz pentatu ere egin halakorik (...) Ezta pentsatu ere, gizarte segurantzaren, nolatan? (...) Aita Autonomoetan alta emanda zegoen, eta hantarako egoten ginenez, baina, kontua ez zen... tiratzen, eta aitari ere ez zitzaion ondo iruditzen”²⁷.

Pilar senarrarekin batera aritu zen Domingo Lumbier ikastetxearekin atezain lanetan; atezain lanpostua senarrarena zen, baina berak ere orduak ematen zituen eskola txukuntzen, eta denboraldi batean bertan jangelako arduradun ere izan zen. Baina ez kasu batean ez bestean, ez zen eskolako langile gisa inon agertu, senarra, ordea, bai.

Consuelok kontatu digu urte askoan lan egin zuela senarrak jarritako tabernan. Ezkondu aurretik, senarrak behin eta berriro esan zion emazteari ez zuela tabernan lanik egin behar, baina gauzak oso bestelakoak ziren, aldeztuta, behintzat, senarrak osasun arazoak izan zituelako. Ez zuen egun bat berea ere kotizatu tabernan egin zituen urteetan:

“Ez, ez, ez nuen batera kotizatu. Ez genuen gizar te segurantzarik, dena ordaintzea zen”²⁸.

26. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/01/05.

27. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2004/11/03.

28. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2004/12/16.

Era horretakoak dira kasu gehienak: emakumeek hainbat ur tez jarduten zuten familiako negozioetan lanean, baina of zialki lan hori egin izana aitor tu gabe. Dena dela, bestelako kasuren bat ere topatu dugu.

Asunek familiaren bulegoan jar raitzen du lanean oraindik ere, eta ezagutu diote bere lana, nahiz eta lan egin zuen lehenengo ur teetan ez zen horrela izan. Hala ere, deigarriena, adinagatik, Carmenen kasua da. Car menek 87 urte ditu eta senar rarekin pentsuak saltzeko negozioa sortu zuenetik, biek kotizatu zuten langile autonomoen er egimenean. Pentsuak saltzeko biltegian, harre- ran, hasi zen lehenbizi, eta senar rak, aldi berean, pentsua saldu eta kamioian garraiatzen zuen. Carmenen ekimenez, pentsuak saltzeko negozioa handitu eta janari denda jar ri zuten:

“Saltzeko, adibidez, bai, bera joaten zen kamioiarekin, baina xehekako sal- menta esaten ziotena egiteko, denda bat jar ri behar zen, erakusmahaiarekin, pisa- gailuarekin eta hori guztia. Eta noski, hara nik joan behar iza n nuen, senarra joan egiten zen eta nik gelditu behar nuen; eta beno, lau kilo pentsu saltzeko egun osoa egon behar nuen hemen, eta orduan, senarrari esan nion, *Badakizu? Nik beste gauza batzuk jarriko ditut salgai, egun osoa hemen zain egoteko, pentsu kilo gutxi batzuk saltzeko!*”²⁹.

Kasu hori salbuespena dela esan daitez ke, emazteak senar rarekin batera kotizatu baitzuen langile autonomoen er egimenean, eta are bereziagoa da kontuan hartuta Carmenek 87 ur te dituela gaur egun.

Emakumeek, oro har, garrantziko zeregina bete dute familiako negozio- etan, baina of zialki ez da hor ren lekukotasunik. Beste era bat eko lanak, adibidez mirabe lana eta beste batzuk, familiaren eremuan egiten ez baziren ere, antzekoa izaten zen egoera. Halak oia da Anaren kasua; 20 ur tez baino gehiagoz etxe batean neskame aritu ondoren, INEMera joan zenea n bere lan egoerari bur uzko informazio bila, jakin zuen ez zela ber tan langile gisa agertzen. Txarok 3 ur tez ikastetxe bateko jangelan lan egin zuen, inolako aseguruirik gabe.


Egia bada ere ikerketa lan honek aztertzen duen denbora tartean ohikoa zela, oro har, estaldurarik gabe edo kotizaziorik gabe lanean jardutea, egia da orobat, era hor retako egoerak ohikoagoak zirela emakumezkoek egin- dako lanetan gizonezkoek egindakoetan baino; batez ere familiar en ba- rruan lan egiten zutenean edo neskame lanetan eta antzekoetan aritzen zirenean.

Eta hori guztia ezkutuko lan merkatuaren beste adibide bat da, eta ikusi bezala, lan honetan parte hartu duten emakume gehienak eremu hor rretan jardun zuten.

29. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/02/02.

2.5. Lantegietan

Aurretik aipatu bezala, 50eko hamarraldiaz geroztik, hainbat industria berri eraiki ziren herrian. Egoera hor ren ondorioz, langile asko behar ziren zuzenean lantegi horietan lanean jarduteko, gizonaek batez ere, eta horrek guztiak Altsasuko biztanle kopurua nabarmen handitzea ekarri zuen berarekin³⁰:



Metalgintzaren alorreko enpresetan edo burdinbideen alor rekoetan (horiek ziren nagusi inguru honetan) ez zuten emakumerik hartzen produkzio prozesuan jarduteko. Pilar Perez-Fuentesek³¹ aipatzen duenaren arabera, Bizkaian ere, Nerbioi ibaiaren ezker aldeko industrietan, gizonaek ziren nagusi lanaren eremuan:

“Meatzaritzaren eta siderometalurgiaren inguruan sortutako lan merkatuan, gizonaek hartu zituzten lanerako hasieratik bertatik, (...)”.

Beste osagai edo produktu moteneko oizpenean jarduten zuten enpresen sorrerarekin (gomazko eskularruak, plastikoak...), hala ere, ugartu egin ziren emakumeak enpresaren munduan sartzeko aukerak, eta kasu askotan, hori izan zen emakumeek lan merkatu normalizatu eta ofizialean parte hartzeko izan zuten lehenengo aukera; izan ere, ordu arte emakumezkoak ezkutuko lan merkatuari lotuta egon ziren tradizioz, eta hari eskertu hartatik irteteko aukera izan zuten.

Altsasuko emakumeen eta industriaeko oizpenaren arteko harremana ohikoagoa da 50 urtetik gora dituzten emakumeen artean, hala ere, badira bestelako zenbait kasu ere, 65 urteko Anabelen edo 77 urteko Margariren kasu adibidez; 30 urte beteta eta familia osatuta zizutela hasi ziren lantegian lanean.

30. AMILIBIA SALGADO, J.; ARBIZU GABIR ONDO, N. *Altsasu-Alsasua*. Altsasuko Udala; Caja de Ahorros de Navarra. 1997. 93. orr.

31. PEREZ-FUENTES HERNANDEZ, Pilar. *Ganadores de pan y amas de casa: los límites del modelo de Male Breadwinner Family*. Vizcaya, 1900-1965. In: SARASUA, C.; GALVEZ, L. *¿Privilegios o eficiencia? Mujeres y hombres en los mercados de trabajo*. Alacanteko Unibertsitatearen Argitalpenak. 2003. 219. orr.

Neska gazteak ezkondu arte lan egiten zuten enpresetan, eta ezkondu eta gero, utzi egiten zuten lana; ordainetan, *ezkonsaria* jasotzen zuten, diru kopuru jakin batez osatua.

Luisak honela kontatu digu berak bizitak oa:

"1975. urte inguruan utzi zioten ezkonsaria ordaintzeari; ezkontzen zinenean, ezkonsaria ematen zizuten, pentsatzen baitzen, ba, ohituraren arabera, ezkondu eta lana utziko zenuela, hori zen ohikoena (...) Nik gogoan dut, ba, nik argi neukala, lanean jarraitu nahi nuela alegia" ³².

Luisak aipatu digu garai hartan ez zegoela ongi ikusia emakumeek etxetik kanpora lan egitea, senarrek mantendu behar zituela pentsatzen zen³³.

Angelak gogoan du nola jaso zuen sari hori bere lanpostua utzi zuenean: "...papertxo bat eta guzti ematen zizuten, Iruñera joan eta diru kopuru bat ematen zituzten (...) Sei mila pezeta eta kasko eman zidaten, oso gogoan dut".

Neskak ezkongabe zeudenean, ez zen inolako esamesarik sortzen lan merkatuaren barruan eta industria produkzioaren prozesuan parte hartzen bazuten. Baina ezkondu eta familia bat osatzen zutenean, gizarite presio handia jasan behar zuten, lanaren eremutik kanpo lan egiten jarraitzearen gutzitza kontrako ikuspegia baitzen nagusi, batez ere, industrian edo antzeko lanetan. Et xeko lanetan laguntzeko lanak edo emakumeari etxean egokitu ohi zitzaizkion lanak (gaixoak, zaharrak... zaintzea) ez ziren beste haiek bezainbat gaitzesten.

Luisa izan zen ezkondu ondoren eta seme-alabak eduki ondoren bere lanarekin jarraitu zuen lehenengoetakoa; honela kontatu dizkigu garai hartako bizipenak:

"...bazen jendea ezkondu eta lanean jarraitu zuena, baina nik lanean jarraitu zuten bi edo hiru bakarrik ezagutzen ditut, baina haurdun gelditu zirenean utzi egin zuten. Garai hartan, uste dut ni izan nintzela, bai ni izan nintzen, enpresan haurdun lanean jarraitu nuen bakarra, edo bakarrenetakoa. (...) Nire ustean ni pertsona bat nintzen eta nire senarra beste bat, eta zergatik egon behar nuen nik haren mende? Ba, ez dakit, argi ikusi nuen, argi ikusi nuen ez nuela inoren mende egon nahi, buruaski izan nahi nuela".

"Haurdun gelditu nintzenean (...), gogoratzen dut amak ere gaizki begiratzen ninduela, *Eta lanean jarraituko duzu?* Eta argi neukan baietz, lanean jarraituko nuela".

Egoera horretan, Luisak erreklamazioa egin behar izan zuen haurrak txikiak zirenean bularra emategatik zegozkion orduak lor tzeko:

"Garai hartan, seme-alabak edukitzen genituenean, ez genuen amatasun baimenik edo lanaldia murrizteko aukerarik, oraingo emakumeei begiratzen dietenean, horrek sortzen dit inbidia. Gogoan dut zer borroka egin behar izan nuen bularra

32. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2004/11/23.

33. PEREZ-FUENTES HERNANDEZ, Pilar. *Ganadores de pan y amas de casa: los límites...*

emateko. Garai har tan hasi zen Buletinean ager tzen, ba, hori, ama zirenek eskubidea zutela, uste dut ordubeteko baimena hartzeko, haurrei bularra emateko (...) Izugarri larritzen nintzen, uste dut ordubete ematen zizutela, bitan banatuta, eskerrak automobila nuen, bestela...”³⁴.

Margari ere lantegi batean aritu zen lanean er retiroa hartu zuen arte; baina ez zen gazte hasi, senarrarengandik bereizita zegoela hasi zen. Erretiroa hartu ahal izateko behar zituen gut xieneko kotizazio urteak betetzeko helburuarekin hasi zen.

Anabelek gogoan du, ia bizitza osoa et xetik kanpo lanean aritu bazen ere (neskame gisa eta harakin lagunt zaile gisa, besteak beste), lantegian lanean hastea erabaki zuenean ask o kostatu zitzaiola senarrak bertan hasteko baimena ematea:

“Berak uste zuen ez zela besteak bezain gizon (senar ra), hemen garai hartan emakume ezkonduak ez zuten lanik egiten. Beno, esan nahi dut ez zutela soldata irabazten, baina lan astoek bezala lan egin dute beti emakumeek ! Gurdi haiekin, behi haiekin, ur ontzi haiek goraino beteta zituztela etor tzen ziren emakume gaixoak, eta gero belarra biltzen... hemen emakumeek lan ask o egin dute; gizonezk oak RENEra edo Fundiconesera joaten ziren, hori baitzegoen hemen urte haietan, eta gero joaten ziren, bai, pixka bat sorora, baina et xean emakumea, eta soroan emakumea, eta seme-alabekin emakumea. Hemen dena zen emakumearent zat. (...) Hura ez zen lana; lana zen soldata et xera ekar tzea, eta hori ez zen ondo ikusten garai har tan”.

(...) Eta lantegira joan nintzenez! (...) Lantegira joan nintzen, 74. ur te inguruan, 73 edo 74. ur te inguruan izango zen (...) Lehenengoetak oa izan nintzen, han ez zegoen emakume ezk ondurik. Hara joan nintzenez, gauza bitxia banintz bezala begiratzen ninduten, Noski! Neska gazte haiek guztiak, eta ni. Greba e re egin zuten (...) Bai greba egin zuten ez zedin emakume ezk ondurik sartu.

(...) Eta jendea nigatik greban, eta ni han. Eta et xera etorri eta esaiozu hori senarrari. Oso gogor ra zen, beraz, etxera etortzen zenez, ezer gertatu ez balitz bezala.

(...) Eta lantegira joan nintzenez, esan zidan (senar rak) *zure bizitzako nahigabe handiena hartu nahi baduzu, segi fabrikara, Zer gertatzen da?, Zerbait galduko duzu? Akaso gizontasuna galduko duzu? Lot sa ematen al dizu zure emaztea fabrikara joatea? Ba, bai, ez baita inor joaten. Ni banaiz norbait*”³⁵.

Anabelek gaztetatik izan zuen garbi lan egin nahi zuela, beregain izan nahi zuen. Eta hor rela adierazi zion senar rari, eta ez bakar rik lanaren gaiari zego-kionez, baita gizaki bezala adierazteko; izan ere, garai hartan, kasu askotan emakumeari ez zegokion jendaur rean iritziak adieraztea. Berak ere gizar te ingurunearen presioari aurre egin behar izan zion, eta ez bakar rik urruneko inguruneari, baita hurbilenekoari ere. Emakumezko langile ezkongabeen ekimenez, lantegian emakume ezkonduak onartzearen kontra antolatutako greba anekdotikoa bada ere, garai har tako ikuspegiaren adibide garbia da.

34. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2004/11/23.

35. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2005/02/21.

Mercedesen (73 urte) esperientzia ere interesgarria da: Gipuzkoako enpresa batean lan egin zuen ama izanda gero ere. Hala ere, ez zegoen langile gisa erregistratuta, aurretik azaldu bezala, bestela, senarrak galdu egingo baitzituen emaztea ez-langile gisa ager tuz gero zegozkion familia laguntzarako puntuak; eta dir u hori ez zen bazter rera uzteko modukoa. Baina handik denbora batera senarra Mercedesen enpresa berean hasi zen lanean, eta familia osoa Altsasura lekualdatu zen. Lantegi ber rian Mercedesen senarra lanean jarraitu zuen, eta emazteak, berriz, langile emakumezko berrien hezitzaile jardun zuen lehenengo hilabeteetan, ofizialtasunik gabe, noski:

“...ni ere etor ri nintzen eta emakumeei irakasten aritu nint zen... ni izan nintzen erakutsi niena lantegia zabaldu zutenean”³⁶.

Dena dela, gaur egun Mercedes k exu da beti “orduka” lan egin du elako eta kotizatu ez duelako. Hala ere, onartzen du haurrak txikiak izan zirenean, oso ondo zeto kiola estatuaren eskutik hartzen zuten dir ua, nahiz eta horrek ondorioz ekarri zuen bere lan egoera er regularizatu ez izana.

Herrian gero eta enpresa gehiago zabaldu ziren, eta emakumeak industria ekoizpenaren prozesuan era aktiboan parte hartzen hasi ziren. Hasieran, parte hartze hori ezkondu eta ama izan aur reko aldira mugatzen zen, baina urteek aurrera egin ahala, ezkondu ondoren ere parte hartzen zuten lan munduan.

Prozesu horretan, emakume askok aurre egin behar izan zioten hurbileko inguruneak emakumea industriako langile eta aldi berean amaitari buruz zuen ideari, ideia horrek susmot xar asko sortzen baitzituen. Beraz, azpimarratu egin behar da kasu honetan zein beste bat zuetan bidea zabaltzeko emakume haien erabakiaren balioa, ezinbestekoa izan baitzen etorkizuneko belaunaldien normalizazioan.

2.6. Langileak eta langiletzat hartuak

Emakumeek herriaren garapenari egindako ekarpenari buruzko azterlan honetan, garrantzi handiko tarteak du lan arloak. Atal honetan egindako sailkapenak erakusten duenez, emakumeek egindako lana ezkutuan egon da ur te askoan, edo ez du eduki ezagutza ofizial edo sozial egokirik (baser riko lanak, etxeakoak, zerbitzuak, apopilotzak, etab.); eta, bestalde, langiletzat hartu ohi zituzten emakume apurrek, industria enpresetan lanean ari ziren emakumeek esaterako, bertan behera utzi ohi zuten beren enplegua, familia osatzen zutenean.

Atal honetan, beren bizitzaren parte handi batean ezagutza ofiziala eta gizar-te ezagutza zuten lanpostuetan lanean jarduteko aukera izan zuten emakumeen esperientziari erreparatuko diogu, zehazki. Emakume horiek, beren lanbideari esker, ez zuten izan beste enplegu bat zuetan ari zirenek (ama zirelarik industrian

36. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/03/11.

ari ziren enplegatuek, esaterako) jasandako gizarte bazterketarik; eta, gainera, gainerako emakume langileek baino gizonen antzekoago baldintzak zituzten (baserrian, apopilotzan edo neska arit zen zirenek ez bezala).

Lanbide horiek irakaskuntza eta osasun zaintza ziren, oro har; eta alde zuzeneko prestakuntza eskatzen zuten.

Baina arlo horiekin loturik lanbideek maila guztietan ezagutzen ziren handiagotatu izatea ez zen halaber. Ikerketa askotan esan izanenez, lanbide horietan ere emakumeek etxetik kanpo lan egin behar zuten, baina emakumeak etxe barruan betetzen zuten eginkizunaren luzapen moduko bat ziren, nolabait esateko. Izan ere, "etxeko andre" idealaren funtsezko eginkizunak seme-alaben heziketa eta gaixoen edo laguntza behar dutenen zaintza izan dira.

Eta horrelaxe agertu da XX. mendeko emakumeen bizimoduari buruzko hainbat ikerlanetan. Horien erakusgarria da, esaterako, Miren Llonaren³⁷ "Entre Señorita y Garçonne. Historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)" liburuaren ondorioetan esaten dena:

"Irakasletzari dagokionez, irakasle lanbidearen feminizazioa nabaria gertatu zen, lanbide hori amatasunari loturik eginkizunekin identifikatu zelako eta eginkizun horiek bihurtu zirelako irakasle lanaren funtsezko ardatz. Irakasletzaren eta feminizazioaren arteko identifikazioaren ondorioz, nabarmen murriztu zuten maisu izateko bideari heldu zuten gizonen kopurua, eta horri esker, zilegatasun sozial nabaria lortu zuten emakumeek arlo publikoaren espazio horretan zuten presentzia. Erizaintzari dagokionez, emakumezkoek medikuaren agindupean egiten zituzten jarduerak gisa ulertu ziren zaintza eta gaixoen arreta, hasiera-hasieratik. Sakrifizioak, pairakortasunak eta gupidak ezaugarri garrantzitsuak izanik, gizonen lehia alde zuzenetik ezabatuta zegoen lanbide horretan. Erizainen ezaugarriak andereñoen ezaugarriekin parekatuz joan ziren, pixkanaka, eta horren ondorioz, bi lanbideen arteko lotura zuzena sortu zen; eta klase eta genero aurreiritziekin ia inolako kontraesanik ez zuten lanbide bat sortu zen horretatik".

Edonola ere, eta emakume haien lan jarduerak beste lan arlo batzuekin alderatuta neurri batean ezaugarri positiboak izan zituela esan daitekeen arren (langiletzat hartuak baitziren gizartean nahiz maila ofizialean), lanbide horretan gaur egun baino askoz ere zailtasun gehiago zeuden.

Begoñak dioenez, esaterako, behin baino gehiagotan leporatu zioten andereño gisa lanean jarraitzea, ama izanik eta langabe zeuden gizonak egonik.

Baina jarrera horiez gainera, Begoñak oso ongi gogoratzen ditu hasierako urteak; batez ere, andereño gisa lanean aritu zen lehen urteetan Gasteiztik eskolak eman behar zituen herrira motorrez nola joan behar izaten zuten eta zer baldintzatan lan egiten zuten:

37. LLONA, Miren. *Entre Señorita y Garçonne. Historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media (1919-1939)*. Malagako Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua; Emakunde, 2002, 300-301. orr.

“Gurdi bidea zegoen han, ez zegoen er repiderik (...) bidexka mo duko bat, eta autobusa handik 3 kilometrora zegoen herri bateraino soilik iristen zen, Albaina izeneko herri batera, astean bitan. Hantxe gelditzen zinen, irten ezinik. Baina aitak *mobilette* bat erosi zidan, eta hantxe joaten nintzen ni Gasteiztik herriara, hogeita hamartara kilometrora, *mobilette*an. Gasteizko mendatetik joaten nintzen, igo eta, gero, jaitsi. Albainaraino, autobusak gelditzen ziren herriraino, errepide asfaltatutik joaten nintzen. Baina Urartean, ni lanean ari nintzen herria, handik hiru kilometrora zegoen, eta, ene, ni bide hartatik, motor harekin!

Behin, gogoratzen naiz motxila bat neramala atzean jarrita, eta galdu egin nuela, barruko arropa neraman motxila hartan; jakina, hainbeste triki-trakarekin... eta norbaitek aurkitu zuen eta Trebiñoko guardiei eman zien, eta, orduan, konturatu ziren nire zela. Eta ziztu batean etorri zen guardia, motxila motorretik erori eta zitzaidan-edo, eta nik baietz, eta berak ea zer neraman barruan. Zera nahi zuten esatea... badakizu, morbotxoa, bularrekoa, kuleroak eta horrelakoak zirela esan nizean nahi zuten; eta nire ezkerrean. *Bada, bai, galdu egin dut. Baina zer zeneraman barruan? Barruko arropa. Baina zer barruko arropa? Esan ez dizut, ba: barruko arropa...* Barrez lehertzen ari ziren, ezagutu egiten baininduten. Izan ere, ospetsu samarra nintzen, nolabait esateko; ez zen gauza ar runta emakume bat motorrean ikustea, 54. urteaz ari naiz. Gainera, galtzak jantzita ibiltzen nintzen! Oraindik harri-garriagoa, eta, jakina, ezagutu egiten ninduten, eta *Urarteko andereñoak sekulakoa hartuko du edozein egunetan, motor horrekin; mendatea igozten du, eta sekulako abiatzen jaisten da*. Autobusari ere aurrea hartzen nion. Pentsa ezazu nolako abiatzen ibiltzen nintzen”³⁸.

Garai hartan, Begoña hilean behin soilik etorri zitezkeen Altsasura; gainerako denbora herrian eta Gasteizen ematen zuen. Herrian, familia bat en etxean hartzen zuen ostatu; garai hartan ohi zenez, komunik gabeko etxea zen, ukui-lura joan behar izaten zuten.

Milagrosek erizain eta ATS ikasketak egin zituen Madrilen, ahizparekin, eta askotariko esperientziak izan zituen lanbide horretan. Donostian hasi zen lanean: Gipuzkoa guztian barrena ibiltzen zen odol transfusioetarako ekipoarekin. Lan hura bertan behera utzekiotan egon zen, ondorez sortzen baitziren egun guztia errepide kaskarrietan goara eta behera ibiltzeko. Halako batean, Ingalaterran erizain gisa lan egiteko aukera suertatu zitzaion, eta haraxe joan zen, beste lankide batzuekin. Itzuli eta Alt sasun funktu zelarik, ahizparekin batera aritu zen erizain, eta ATS lanak egin zituen Fundiciones enpresarentzat eta RENFErentzat. Gogoan du Fundiciones lantegian ari zela nola hasi zen mediku batekin enpresari osasun zerbitzuko eskaintzen ere, institutuan ingeleseko eskolak emateaz gainera:

“Bai, garai batean oso-oso lanpetuta ibili nintzen, gauza batzuk utzi egin behar izan nituen... garai hartan, Fundicionesen ari nintzenean, institutuan ere lan egiten nuen, estuasunean jarri nindutelako, eta gero, enpresentzako medikuntzaren kontu hura sortu zen gainera; (...) medikuaren eta bion artean antolatutako enpresaren zerbitzua. Hemen inguruko enpresa guztietan sartu ginen: Uharte Arakilen, INASAn, Sunsundegin. Enpresa zerbitzuak zenbait erizainen artean betetzen hasi ginen. (...) Ordura arte ez baitzen izaten enpresetako mediku zerbitzurik;

38. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/03/24.

harrezkero hasi ziren enpresetak o mediku zerbitzuak antolatzen. (...) Lan gehiegi izan nuen garai har tan!”³⁹.

Edonola ere, gure ik erketen arabera, lanbide arautu batean jard un zuten eta aurretiko formazio jakin bat zuten emakume horiek bestelak o esperient ziak izan zituzten lan munduaren bar ruan.

3. EMAKUMEEN BIZITZA INTIMOA

Atal honetan, emakumeek beren bizitza pribatuari buruz elkarrizketetan aipatu zituzten egunerok o bizitzako bizipenak aipatu nahi ditugu. Jakina, garai hartako bizipenetan oso nabaria da Eliza Katolik oaren agindu erlijiosoen eragina. Aipamen gehienak emakumeek sexualitateari bur uz zuten jar rerari eta gizonekiko harremanei buruzkoak dira; per tsonen bizitza pribatuko alderdiak izan arren, Elizak etengabe “zelatat zen” zituen garai har tan.

Elkarrizketetatutako emakume gehienek diotenez, Eliza Katolikoaren dotrinak sekulako eragina zuen garai har tan herritarrengan. “Erljioak dena markatzen zizun”⁴⁰, dio Angelak; eta Milagrosen arabera, “behar bat balit z bezala”⁴¹ bizi zuten erlijioa.

Behin eta ber riro errepikatzen zizkieten bekatuaren eta damuaren ideiak, nagusiki sexualitateari eta gizonekiko o harremanei loturik. Elka rrizketa egin diegun askok diote gai hor rek frustrazioa sortzen diela gaur egun, ezin izan zituztelako normaltasunez bizi beren sexualitatea eta bik ote harremanak. “Senargaiari besotik heltzea ere bekatu zen, baita bizi guztia harekin ibilia bazinen ere”, dio Txarok. Gurasoek gauez senargaiarekin ibilt zea debekatu ziotela kontatu digu: “Ber riz jaioko banintz...!”⁴².

Garrantzi handia ematen zit zaion gizonekiko urruntasun fisikoari (dantzaldietan, gizona ahalik eta gut xien ukitu, eta ez elkar tu mutil batekin ezkutu samarreko tokietan). Paulette ongi gogoratzen da bere senargaia zenarekin eta laster senar izango zuenarekin elkar tzen zenean nola ibilt zen ziren:

“Gogorat zen naiz egun batean, jakina, mutilak, badakizu, beti zerbait ukitzeko aukeraren zain; eta egun batean, atarian geunden, eta gainera ezkontzekotan ginen, eh, ezkontzera gindoazen, eta, antza denez, Pedrok zerbait ukitu nahi, eta kilimak eginez eta hor rela zebilen, eta ni iheska. Gainera, asto hutsa nintzen! Uuh, astoa! Ez, ba, ez ninduela ukituk o. Badakizu? Ezetz, ba. Orduan, iritsi da gure aita, eta *Zer ari zarete hemen?* Eta hau eta bestea.

39. Alt sasun egindak o elkarrizketa. Data: 2005/03/20.

40. Alt sasun egindak o elkarrizketa. Data: 2005/01/12.

41. Alt sasun egindak o elkarrizketa. Data: 2005/03/20.

42. Alt sasun egindak o elkarrizketa. Data: 2005/02/04.

Hura haserrea, sutan jarri zen! Eta zerbait ukitu zen aritu bagina ere, zer? Zuri bost axola! Ez? (pent satu zuen)”⁴³.

Mariak ere antzeko egoera kontatzen du senargaiarekiko elkarganatzei buruz:

“Aizu, baina joaten zinen senargaiarekin... eta zera, ni lot satia izan naiz, oso lotsatia, eta zera, lagundu egiten zizun, eta beti argi zutoinaren azpira, nik ez bainuen nahi inork bazterretan ikusterik! (bar rez)”⁴⁴.

Baina bekatu bakarra ez zen gizonekiko kontaktua; norberaren gorputzarekin ere lotu behar zegoen. Asunek hori kontatu digu konfesat zera joan zen egun batean apaizak egindako galderak nola harritu zuen:

“Gogoratzen naiz hamalau-hamabost urte izango nituela, eta bi apaiz gazte etorri ziren (...) eta haiengana konfesat zera, eta Don Miguel hura behin hasi zitzaidan galdetzen ea lotu biluzten nintzen, erabat nahastuta utzi ninduten galdera batzuk egin zituzten”⁴⁵.

Alderdi horretatik, oso bitxia da amatasuna nola bizi zuten, esaterako. Erlijio katolikoarentzat eta estatu frankistaren ideologiarentzat, nazional-katolizismoarentzat, funtsezkoa zen emakumearen berezko eta goreneko xedea amatasuna zela zioen ideia.

Hori kontuan hartuta, oso deigarria da 50-60 hamar raldira arte-edo ospatu ohi zen jarduera erlijioso bat, amatasunari lotua (nahiz eta elkarrizketatutako askok esan duten ez direla gogoratzen jarduera hura egin izanaz). Ohitura erlijioso hori Ama Birjina bere seme Jesusez erditu zeneko Garbikundearen oroitzapen moduko bat zen. Jatorriko juduko erritual bat zen, katolizismoak bere egina, jatorrizkoaren nabardura guztiekin ez bazen ere; edonola ere, amaren eta haur jaioberriaren *garbikunde* egiten zen elizan, eta urrats hori egin gabe, ezin agertu zitezkeen jendaurrean ama eta haurra. Ezinbestekoa zen amak eta haurrak apaizaren bedeinkazioa jasotzea eta biak elizan sartzea, berriro kalera irteten aurretik, jendaurreko bizitzara irteten aurretik. Bete behar reko erlijio agindu guztiak betetzen zituzten senar-emazteen seme-alabak izan arren, *garbikunde* hura egin behar zitzaien, sexu harremanen fruitu baitziren, azken batean.

Horren harira, Consuelok gogoan du lehenengo aldiz ama izan zenean erritu hura nola bizi izan zuen; nahiko harritu omen zuen, bera gero liberalagoan hezitako neska zelako (Donostian, Frantzian eta abarretan bizi izan zen) eta ohitura haren zentzua ulertzen ez zuelako:

“Erditu nintzen, eta gogoratzen naiz, ba, nik, zera, garbitzeko gogoa nuela, eta garbitu nintzen, eta, neska, leihoa pixka bat ireki eta burua kanpora ateratu nuen...”

43. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/01/05.

44. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2004/10/26.

45. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2004/11/03.

abendua zen... (...) eta han etor tzen zait amaginar reba, korrika, esanez *Sar zaitzez barrura, sartu barrura!* Eta nik, berriz, *Zergatik, ba? Ba ezin zaituelako inork ikusi elizatik igaro arte*. Eta ni, atzera, *Eta zergatik igaro behar dut, ba, elizatik?* Eta esaten du, *Ba, zera, bekatu mortalean nengoen...* Jakina, nire semea aldean nuelako. Eta esan nion *Ni elizatik ezkondata ez nago, ba...*”.

Baina Consuelok mugit zeko eta ar nasa hartzeko gogoaz zuen:

“Orduan, jantzi nintzen txukun-txukun, hartu genuen umea (...) eta amaginarreba eta biok Bergerarengana joan ginen eta kandela eta zapia erosi genituen (...) Elizara joan eta zeremonia bat egiten zizuten, otoitz egiten zenuen eta hori guztia, eta haur ra bedeinkatzen zuten, eta, gero, ez zenituen gehiago ikusten ez kandela ez zapia (...) eta, jakina, orduan bai, orduan kalera irten eta jendearekin hitz egin eta denetik egin nezakeen. Ene, neska! Ar nasa hartu, behintzat”⁴⁶.

Txaro ere gogorat zen da:

“*Entratida*⁴⁷ zen, *Entratida* esaten zitzaion”, “... Nire alaba Tolosan jaio zen, oso erditze txarra, dena gaizki, orduan niri, zera... eta neska Tolosan bataiatu zuten. Eta niri, medikuak esan zidan *Begira, Txaro, orain ohera joango zara, neska bataiatuta doa, orduan, zure sakramentino bat ekarriko dut gaur eta erietxeko kaperan egingo duzu Entratida; hala, ongi jartzen zaren egunean, ba kaleko ateraino behintzat atera ahal izango duzu*. Bestela ezin izaten bait zenuen etxetik atera”⁴⁸.

Begi-bistakoa da *garbikunde* prozesu horrek ama eta haurra hartzen zituela, eta inola ere ez aita. Elkar rizketa egin diegun 65 ur tetik beherako emakumeek ez zuten er rito hura egin behar izan.

Elizaren agindu guztiak beteta ere (ezkontza erlijiosoa...) amatasunak halako *garbikunde* prozesua eskatzen bazuen, pentsatzekoa da beste egoera batzuetan haurdun gelditzea edo ama izatea benetan latza izango zela emakumeentzat. Lourdesek 18 urte zituen orduan, eta elkar rizketa egin diegun emakumeen arteko belaunaldi gazteenetak o batekoa izan arren, ezkongabe zela lehenengo haurdunaldiaren berria nola bizi zuen kontatu digu.

Horrelaxe:

“Oso gaizki, oso gaizki ibili nintzen (...) lehenengo, familiari huts egin izan bazenio bezala da, ez da sexuaz hitzik egiten, *Kontuz ibili mutilekin, gauza bakararren bila ibiltzen baitira horiek* besterik ez da esaten, eta zuzen jartzen zara *Zer arraioren bila ibiliko ote dira, ba?* Ez? (...) Eta, jakina, familiak nola kontopontzen

46. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2004/12/16.

47. *Entrántico* izenez agertzen da Jose Maria Iribarren Vocabulario Navarro lanean, honako definizio honekin: “Bidasoa eta Aibarren horrela esaten diote erditu ondoren ama eta haurra elizan sar tzeari.”

48. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2005/02/04.

zuen hura? *Ba, ezkondu egin beharko du (...)* Eta, gero, familia geldit zen zen atsekabetuta, eta lot satuta ere bai”⁴⁹.

Ezkontza zen era hor retako egoeretako irtenbidea, baina ezkontzarik gauzatu ezin bazen, ezkutuagoko beste bide bat zuk hartzen zituzten, ezkontzatik kanpo jaiotzen ziren haur horiek adopzioan emanez, adibidez. Egoera horren harira aipatu digute *tornua*, haurrak adopziorako ematerakoan amaren nortasuna ezkutuan gordet zeko aukera ematen zuen umezurztegietak o gailua, amaren “bekatua” ezkutat zen zuena.

Carmenek badu sistema hor ren entzutea:

“...haurdu gerat zen ziren neskek, inork ez jakiteko, ba, umezurztegira eramaten zituzten haur rak, eta han, nonbait, haurrak tornu batean sartzen zituzten eta hantxe geldit zen ziren”⁵⁰.

Anari dagokionez, ama izan eta berehala senar rarengandik banantzeko erabakia hartu izanak arazo ekonomiko larriak ekarri zizkion, baina gizarte harremanetan izan zituen ek onomian baino zailtasun handiagoak:

“Nik garbi neukan ezin nuela hor rela jarraitu, (...) baina nire amak ez zuen nahi ni han geldit zerik, Araian geldit zerik, orduan, Altsasura (...) Zure orde z erabakit zen dute, eta gaur, agian, banantzera doazen nesk ek berek erabakiko dute, baina orduan, garai har tan, ez zenuen zuk erabakit zen.”

“Etxe horren (lan egiten nuen et xearen) eta gurasoen artean, urteak joan zitzaizkidan, hilik banengo bezala bizi nintzen (...) et xetik lanera, atera ezinik, alaba txikia zenuelako, eta esamesengatik ere bai, jakina. (...) Ezkutatu egiten zintuzten, familiak ezkutatu egiten zintuen. *Nola joango zara? Ez al zara jabetzen... ene, zer esango du jendeak, nola joango zara?*”⁵¹.

Gure protagonisten bizitza pribatuan erlijioak zuen eraginaz ari garela, elkarriketa egin diegun emakumeek gaztetan beren “patuari” buruz zuten ikuspegia jaso nahi izan dugu: beraiek zer espero zuten eta besteek beraiez zer espero zuten.

Behin eta berriz adierazi dugunez, estatu frankistak eta Eliza Katolikoak sustatutako nazional-katolizismoaren ideologiak goresten zuen emakumearen eredia ama eta et xeko andre zen emakumearen eredia zen; alegia, etxeaz eta familia zaintzeaz beste ezer taz arduratzen ez zen emakumearen eredia. Ikusi dugunez, sistemak berak zigortzen zuen et xetik edo familiatik kanpo egiten zen lan ordaindua (familia laguntzarako puntukako sistema). Egoera horretan, emakumeek, heldutasunean, nahitaezko urratsak zituzten ezkontzea eta familia osatzea.

49. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/03/09.

50. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/02/02.

51. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/02/10.

Fedea lantzeari eskainitako bizimodua zen emakumeen beste aukera.

Elkarrizketa egin diegun emakumeen artekoren batek dioenez, nolabaiteko gupidaz begiratu ohi zitzaizkien aukera horietako bati heltzen ez zioten eta ezkongabe gelditzen ziren emakumeei. Halaxe gogoratu du Mariak:

“Ba, nola esan, zitalkeria moduko zerbait zen, bai (...) gero, hori, ezkongabe, eta gainerakoak seme-alabekin. Nik badut lagun bat, auzoko lagun minak ginen gainera, eta ezkongabe, bizi guztia ezkongabe...”⁵².

Hala ere, formazioa jaso eta ezagutuz zuten lanbideetan jardutearen aldeko hautua egin zutenek ez zuten berdin bizi egoera hura. Milagro osi, adibidez eta besteak beste, ezkongabe izateak askatasun gehiago eman zion, lanerako nahiz aisiarako, eta bidaiak egiteko eta bere adineko emakume gehienek ezin egin izan zituzten hainbat gauza egiteko aukera eduki zuen.

Begoñak Irakasle ikasketak egin zituen, eta andereño jardun zuten bizi guztian, eta berak ere heldu zion gai honi. Ezkondu egin zen, baina gogoan du garai hartan oso garbi zeukala bere lana edukita ez zela inoren mendeko egongo eta inork ez zuela bera mantentzeko arduratu behariko:

“Nire adineko neskek, edo ezkondu, edo betiko neska zahar geldi tu (...) Nik ez dut inork ni mantentzeko beharrik (...) Autonomoa naiz, badaukat nire sosak nola atera”⁵³.

Edonola ere, ezkontza eta amatasuna ziren bizitzako ibilbide naturala, ia emakume guztientzat.

Moral kristauak zuzen-zuzenean eragiten zion emakumeen eta gizoneen esparru erabat pribatua zenari, emakumeenei bereziki.

Elizako errituetan parte hartzea bera, ez zen nahitaezkoa berez, baina ia nahitaezko bihurtzen zen, sekulako presio soziala jasan behar izaten bait zuten erritu horietan parte hartzen ez zutenek.

Egoera hori, halere, ez zuten emakume guztiek beti berdin bizi. Presio horretaz ongi asko jabetzen ziren emakumeak aurkitu ditugu, baina baita halako presiorik sumatzen ez zuten emakumeak ere; dena dela, gehienek aitortzen dute garai hartako moral kristaua zorrotzegia zela sexualitateari dagozkion gaietan. Hala, emakume askok ohitura eta aztura askoren zentzuaz ere zalantza egiten zuten garai hartarako, baina ohi ziren horiek ia nahitaezko betetzera behartuta ikusten zuten beren burua. Garrantzizkoa irizten diogu, ordea, pentsamolde kritikoa hori bazutela nabarmentzeari, edo, behintzat, batzuek ideiak zalantza jartzen zituztela adierazteari; izan ere, aurreragoko belaunaldien ama hezitzaile ziren aldetik balioen eta

52. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2004/10/26.

53. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/03/24.

kulturaren transmisore gisa egin zuten lan eskergaren bidez, eta denborak aurrera egin ahala iristen ziren ideiei bidea zabalduz, berebiziko laguntza eman baitute ideia eta pent samolde berriak garatzeko, eta, beraz, komunitatea garatzeko.



Domingo Lumbier eskolen inaugurazioa. 40. hamarkada

4. EMAKUMEA BIZITZA PUBLIKOAN

4.1. Politika

Lan hau egiteko kontuan hartu ditugun urteak ez ziren izan mugimendu politiko bizikoak, inondik inora, Francoren diktadurak erabat mugatzen baitzituen adierazpen politikoa, baldin eta mugimenduaren ideiei jarraitzen ez bazieten.

Urte haietan, beraz, jendaurreko jarduerak politikoko bakarrik erregimenak berak sortutakoa zen, edo erregimena babesten zuena.

Francoren erregimenak nazional-katolizismoa hartu zuen oinarri ideologiko gisa eta, lehen esan dugunez, emakumearen eginkizuna bizitako esparru guztiarentzat bazegoen ere oso mugatuta, begi-bistakoa da emakumeentzat ia erabatekoa zela murrizketa hori.

Altsasuko emakumeei egindako elkarrizketetan ikusi dugunez, politikan oso eginkizun murriztua izan zuten. Hala ere, gure protagonistek emakume

helduagoen kasuak gogoratu dituzte: Ger ra Zibilean beren milita ntzia politikoa edo beren senitar tekoena zela-eta emakume helduagoek izandak o bizipenak, hain zuzen.

Hauxe kontatu digu Mariak, adibidez:

“Nik bi bizilagun nituen, elkarren albo-alboan bizi ginen, eta espet xera eraman zituzten eta ilea moztu zieten. Bat *nazionalek* Donostia har tu zutenean etor ri zen etxera, gurasoak ikustera; et xean sartu zen, eta gurasoak agur tu ere egin gabe, beste bandoko batek har tu zuen. Har rapatu eta espet xera eraman zuten, bi ahi-zpak eduki zituzten, ilea moztu zieten, eta direnak eta direnak egin zizkieten. Ni jana eramatera joaten nint zaien. (...) Ezk ertiarak ziren! Gor riak! Bat, Donostian neskame, gaztea; baina bestea manifestazioetara eta joaten zen, alkandora gor ria eta gona urdin iluna jant zita, uste dut”⁵⁴.

Milagrosek amaren eta izebaren kasuak oroit zen ditu:

“Ilea moztu zieten amari eta izebari, eta izebaren lagun bati, izebaren laguna izateagatik. Lotsagarria zen hura. *Viva España* esanarazten zieten... Udaletxearen inguruan bira egin behar zuten, eta han, ilea mot z-motz eginda, *Viva España* esate-ra behartzen zituzten”⁵⁵.

Milagrosek gogoan du, hedabideetan eztabaida politikorako debekua eta zentsura nabariak baziren ere, bere et xean elkar rizketan arit zera elkar tzen zirela:

“Nire izeba zen erabat politik oa, politikeroa, eta horregatik moztu zioten ilea, eta nire amari, harengatik, politikoa zelako... eta azkeneraino gainera, politikero amorratua. (...) Ez zen inon sar tuta ibiltzekoa, baina hit z egitekoa bai, ordea; nire et xean bilerak egiten ziren, irratarik inon ez zegoenean, *La Pirenaica* entzuten genuen denek, ezkutuan... zeren, gainera, gero leihoeetatik ent zuten zizuten eta debekatuta zegoen *La Pirenaica* entzutea, eta, orduan, ba, han elkar tzen zen sekulak oa...”.

Ikerketa hau egin ondok o urteetan, demokrazia etor ri zenez gero, emakumeek herriko bizitza politikoa duten par taidetza gero eta gehiago zabalduz joan da, Udalari dagokionez nagusiki.

4.2. Asoziazionismoa

Jarduera politikoari buruzko atalean esan dugun bezalaxe, asoziazionismoan ere oso partaidetza mugatua izan zuten emakumeek urte haietan, murrizketa bikoitza baitzuten. Batetik, emakume izanik, lehen esan dugunez, bizitzako arlo pribatuan baino ez zuten ia jarduten. Eta, bestetik, Francoren erregimenaren aparatoak elkar tze mugimenduaren gainek o kontrol zorrotza zuen, eta er regimenaren helburu ideologiko berberak zituzten el karteei beste ezer ezeri ez zioten biderik ematen.

54. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2004/10/26.

55. Alt sasun egindak o elkar rizketa. Data: 2005/03/20.

Elkarteen, beraz, ezer gutxi egin ahal izan zuten urte haietan. Gure elkarriketetan bildu ditugun erreferentzien arabera, bi motatako elkarteak ziren nagusi, emakumeen partaidetza aktiboari dagokionez.

Batetik, elkarte erlijioso eta gazte elkarteak zeuden, Elizak sustatzen zituenak. Aztergai hartu dugun denbora tartean lehenengo sortu zirenak izan zirela esan daitezke. Angelak honelako ontatu digu JAC (Juventudes Agrarias Catolicas) elkartean zuten parte-hartzea:

“Ni ere izan bainintzen talde horietako, JOCKoa eta JACkoa, Gazte Katoliko eta ez dakit zer gehiago eta langile eta hori guztietako. Etxarrin talde polita zegoen (...) Elizan Accion Catolicak o jendea ibiltzen zenean gara batean, eta bazegoen hau eta bestea, baina hori kanporik ez, Eliza eta kito. Ba, orduan sortu ziren gazteria nekazari eta gazteria langileen talde horiek. Eta horietakoak ginen gu, Elizako taldea (...) Izan ere, emakumeak ginen nekazari taldea, emakumeak ginen, emakumeak bakarrik eta gero, beste alde batetik, gazteria langileak zeuden, JOC, gizonenak.

(...) Astero egiten genuen bilera apaizarekin eta, gero, noizean behin elkartzten ginen, ba, Etxarrikoekin, Olaztikoeekin (...) Zergatik antolatzen ginen? Ezer ez, ba, tira, agian garai hartan joango zen norbait bileran nazional edo probintzialen batera hor zehar, baina hemen inguruan, ni adibidez, hemen ingurukoetan ibiltzen nintzen, hortik gora, goi mailakoetan, ezer ez. Baina, tira, elkarte egiten zinen, esperientziak trukatzeko zentzuen, bestelakoak ginen, zeren ia inor ez zenean ezer takoa, eta gu, berriz, harrapatzen genuen edozer gauzatarik ginen”⁵⁶.

Talde horien bitartez adin bertsuko kideekin harremanak izateko modua zuten neska gazte batzuek, esperientziak trukatzeko aukera ematen zuten tresna bat zen. Eta lehen esandako ezaugarriak zituzten, alegia, gazte elkarte erlijiosoak ziren, nazional-katolizismoaren ideologiarekin bat zetozenak; baina, gero, praktikan, taldeko kideen bizipenetan eragin handiagoa zuten talde bateko kide izateak talde horien helburu ideologikoa baino.

Bestalde, 60ko hamarraldiaren hasieran Gure-Etxea kultura eta kirol elkarteak sortu zuten Alt sasun, herriko gazteen eskariari erantzungo zenez Udalak utzitako lokal batzuetan. Elkarte haren mendi taldean hasiera-hasieratik partaidetza hartu zuten emakumeek, etengabe. Horietako ontatu digu Angelak, hasierako garaian taldeko idazkari izan zenak:

“Hemen talde bat sortu zen, Gure-Etxea, horregatik gelditu zitzaion gero izen hori eraikinari, eta hori nesken eta mutilena zen. Horietako beste erik ez genuen behar! Kultura eta kirol elkarteak. Orduan, zera zegoen, mendi saila (...) Hasieran oso polita izan zen, ez, zeren, gainera, gazteen artean eraman genuten elkarte bat zen, taberna eta guzti, aizu! Alegia, aste bukaera batean agian tokatzen zitzaizun Gure-Etxeko tabernan jardutea, dirua ateratzeko, eta tokatzen zitzaionak, hantxe egon behar, oso formala zen, oso txukuna. (...) Eta mendi taldea zegoen; gauza gehiago ere izango ziren, baina, tira, ni, behintzat, mendi taldekoak nintzen, eta ezinbestean, ez bainintzen geldirik egoten, eta Luisa, hura ere mendi taldekoak zen. Beti gogoratzen naiz ni idazkaria nintzen zela. Ene! Zer izango idazkari izatea, eta, begi-

56. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/02/12.

ra, hartzen nuen libretatxo bat, horrelakoa, txikia, eta *Gai zerrenda!*, nik nahi nuena idazten nuen, eta kito”⁵⁷.

Mendi taldeaz gainera, baziren beste talde bat zuk, dantza taldeak adibidez; gainera, hitzaldiak antolatzen ziren, baita kultura ekitaldiak eta abar ere. Baina finkatuta zeuden mugen barruan, betiere. Talde horietan sortzen hasten zitzairen gazteei kezka politikoa, baina, askotan, zertan ari ziren benetan ohar-tu gabe. Angelak, esaterako, gogoan du nola abesten zituzten Che Guevarari buruzko kantak, edo euskarazkoak, mendiko ibilaldietan betiere.



Gure-Etxeko mendizale taldea. 1967. urtea

5. DENBORA LIBREA

Interesgarria da Altsasuko emakumeek denbora librean zertan ematen zuten eta tarte horietarako joerak eta zaletasunak nola aldatuz joan ziren aztertzea, herriaren garapenaren isla baitira ohitura eta aztura horietarako.

Elkarrizketa guztietatik ateratako ideia orokor gisa, esan daiteke emakumeen oroitzapenen arabera, urte latzak izan zirela: gogor lan egin behar izaten zuten eta olgetarako denbora gutxi gelditzen zitzaienten, bereziki familia osatu eta ama izatea egokitzen zitzaielarik.

Kasu batzuetan, ez zitzaienten aisiarako ia batere denborarik gelditzen. Honek hitz egin digu Carriren menek:

“Hara, lanetik etxera itzultzen nintzenean, ezta eseri ere; arropa haiek txukundu behar ziren, dena, egunero joaten ziren eskolara-eta. Garbi joan behar zuten, eta ongi zaindu beharra zegoen dena ongi eta txukun egotea. Nik etxean

57. Alt sasun egindako elkarrizketa. Data: 2005/01/12.

igarotzen nituen igandeak, zerbait pasaratu behar zela, beste hura egin behar zela. Nik ez dut sanpedrorik ikusi hemen... ba, orain dela urte gutxira arte ez dut nik sanpedrorik ikusi”⁵⁸.

Hala ere, emakumeek eginbehar ugari bazituzten ere, bestelako jarduera batzuk egiteko tarteren bat gelditu ohi zit zaien gehienei. Oro har , lagunekin atera edo plazak o dantzaldietara joaten ziren. Jarduera hori ongi gogorat zen dute bai 80 ur teko emakumeek, Mariak esaterak o, bai ask oz ere e makume gazteagoek ere, 52 ur teko Purik adibidez.

“Orduan jendeak ask o dantza egiten zuen plazan, eta egunero aterat zen ginen paseat zera. Bidegurutzetik, botika, (...) eta Elizalde et xeraino (...), ba, horixe zen paseo bat. Gaeuz paseoa zen, hor denak elkar tzen ginen”⁵⁹.

Mariak azaldu digu hori, baina Puri ere oroit zen da:

“Ni 26 ur terekin ezkondu nintzen, eta, ordura arte, nire lagunekin igarot zen nuen denbora libre: hor zehar ibili, paseat zera joan, batez ere elur ra botatzen zuenean, mendian gora igot zea... beti paseoa. (...) Zinema ere bazen, zinemara joaten ginela ere oroit zen naiz”⁶⁰.

Hain zuzen ere, zinemari hainbat belaunalditako emakumeak elkar tzen diren, baina Mariak gogoan du bat zuetan nekez eskuratu ahal izaten zutela sarrera ordaintzeko adina diru.

Udan, neska batzuk ibaira joaten ziren, bainatzera, baina Milagrosek dioenez, batzuei ez zit zaien ongi iruditzen:

“Ba, iristen zen uda, eta betiko erretolika, *Sorozarretara igeri egitera joaten diren horiek* (apaizak). Geu ginen horiek; bazen put zu bat Sorozar retan, eta hara joaten ginen uda oro, igeri egitera”⁶¹.

Emakume helduenera artean, ia inor ez zen tabernara sartzeko. Gizonen espazioak ziren, nahiz eta bazeuden salbuespen batzuk. Consuelok, adibidez, taberna bat gobernatu zuen urte askoan, eta gogoan du bere tabernan, gizonen gainera, familia osoak elkar tzen zirela aperitiboaren orduan edo plazan dantzaldia zenean; kafea hartzera ere sartzen omen ziren emakume batzuk, udatiarrak gehienak. 50eko hamarraldian giro aparta zegoela esan digu:

“Ostegunak *modako ostegunak* izaten ziren, orduan zinema eta musika izaten ziren (...) udan, udatiarrak eta guzti jaisten ziren herriara, ez dakizu zer zen hura!”⁶².

58. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/02/02.

59. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2004/10/26.

60. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2004/12/11.

61. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2005/02/20.

62. Alt sasun egindako elkarriketa. Data: 2004/12/16.

Urteek aurrera egin ahala, emakumeak beste jarduera eta olgeta batzuetan parte hartzen hasi ziren. Mendira irteerak egiten hasi ziren, batzuk herriko mendi taldearekin, mutilekin batera. Gaua mendian igaro behar izaten zute-nean, kritika anitz entzun behar izaten zituzten.

“Oso garai polita zen, mutilekin irteerak hasi ginen garaia. Ene! Dira eta ez dira entzun behar izaten genituen! (...) Mendira, mendira joaten ginela, kanpin denda lo egin behar genuela, baina bakoitzak berean lo egiten zuen, ez pentsa, arreba bagina bezala tratatzen gintuzten; baina jendeak, *zer ariko dira, zer ez ote dira ariko*”⁶³, kontatu digu Angelak.

Dantzalekuetara eta diskoteketara joaten ere hasi ziren, 60ko hamarraldian, eta batzuk gaua etxetik kanpo igarotzen ere bai, inguruko herrietako jaiak zirela-eta.

Angelak gogoan du garai hura: “Gu, esaten dizut, Etxarriko horiekin, haien furgonetekin, Sakana guztian barrena ibiltzen ginen”⁶⁴.

“Egia esan, parranda zale amorratuak izan gara, nik askotan egin izan dut Olaztira edo Bakaikura joan, festetara, arropa aldatzera etxera itzuli eta zuzenean lanera (...) Ez, ez zen normalena; nik uste dut orduan ere gu izan ginela apur bat..., mendira joaten hasi ginen, lagunarte bat; igandetan mendira. Eta, orduan, zera, elkartu egiten ginen, Etxarriko mutilekin asko ibiltzen ginen. Ba, hori, elkartu egiten ginen, mutilekin mendira joan eta, gero, ez dakit ba nik zergatik, baina sekulako parrandak egiten genituen, nik uste dut gurea gehiegia izan zela”⁶⁵, dio 57 urteko Luisak, emakumeen artean aisian geratu ziren aldaketak bertatik bertara bizi izan zituenak.

“Gogoratzen naiz dantzalekuaz, plazan dantza egin ordez, eta euria egiten zutenean, frontoian dantza ordez, halako batean dantza zalekura aldatu ginen. Orduan, tira, sekulako iraultza izan zen hura guretzat”.

